

# Kontzeju

Oñatiko Udall aldizkaria | 2018ko martxoa | 281. zenbakia

www.oñati.eus



Berba Oñati



@BerbaOñati



koletika



ConteOñati

DELIC



Euskal Herriko Mugimendu Feminista

## EMAKUMEEK\* MUNDUA GELDITU NAHI DUTE M-8an

Mobilizazioetan parte hartzeko deia egin du Oñatiko Sare Feministak

# emakumeok \* plante nosotras paramos nous on sàrrête

Aurtengo martxoaren 8an Oñatiko Sare Feministak, Euskal Herriko mugimendu feministarekin elkarlanean, bat egin nahi du EMAKUMEOK\* PLANTO aldarriarekin, menpean hartzen eta zapaltzen gaituen sistema kapitalista, arrazista eta heteropatriarkala salatzeke. M8 Greba eguna bide luze baten abiapuntua izango da.

## zergatik egingo dugu greba?

Emakumeen\* nazioarteko grebarekin bat egitea erabaki dugu...



### Eredu ekonomiko honek zapaltzen gaituelako:

- Europar emakumeek\* astero 26 orduz ordaindu gabeko lanak egiten ditugu gizonak 9 ordu egiten dituzten bitartean. Inork aitortzen ez duen lana da, ikusezina.
- Emakumeek\* lanaldi bikoitz eta hirukoitzak egiten ditugu gizonak eta estatuak ez direlako zaintzaz arduratzen.
- Hego Euskal Herrian gizonak emakumeek\* baino %35,6 gehiago kobratzen dute, enplegu berdinarekin aurrean soldata berdina kobratzea exijitzen dugu.
- Emakumeek\* lan prekarietate handiagoa jasaten dugu.
- Emakume\* langile asko lan erregimen orokorretik kanpo gaude, lan-eskubiderik gabe: etxe barruko langileak, nekazariak, sexu langileak, aniztasun funtzionaladun langileak, langile autonomoak...
- Etxe barruko langileak esklabo gisa bizi gara.
- Gizartean amatasuna goraitpatzen da, aldi berean, lan-merkatuan zigortuz.
- Gure pentsioak baxuagoak dira, eta gure zahartzaroa txirotzen dute. Pobreagoak gara eta gizarte politiken bazterketak gehiago pairatzen ditugu.
- Emakume\* gazteoi formakuntza eta esperientzia gehiago exijitzen zaizkigu baina aldi berean lan-prekarietatea pairatzen dugu.



### Kultura patriarkalak baztertu, objektu bihurtu eta estereotipatzen gaituelako:

- Historia, literatura eta zientzia liburuetatik ezabatu gaituzte.
- Hedabideek, publizitateak eta sareek objektu sexualtzat gaituzte, kontsumituak izateko prest.
- Genero estereotipoak komunikabideetan, solasaldietan, erakundeetan erreproduzitzen dira.
- Hierarkia erlijiosoak, Estatuak edo botere ekonomikoek gure gorputz eta sexualitatearen gaineko erabakiak uka zen dizkigute.
- Politikan, ez gaude eragiteko eta erabakitzeke ahalmena duten eremuetan.



### Indarkeria matxistak jipoitzen gaituelako:

- 2010-2015 urteen artean 33 emakume\* hil dituzte Hego Euskal Herrian. Eraildako emakume\* guztiak falta zaizkigu.
- Sexu-esplotaziorako salerostea: emakumeen eta umeen merkantilizazioaren adierazpena.
- Nazkatuta gaude kaleko jazarpena eta sexu erasoak jasateaz eta alor intimoan kontrola, xantaia eta apalkuntza pairatzeaz.
- Beldurrean hezten gaituztela salatzen dugu, gure testigantzak zalantzan jartzen direla eta salatzen dugunean epaituak gara.
- Ez gara erantzuteko gaitasunik gabeko biktima pasiboak.
- LGTBI-fobiak gure biziak estutzen dituzten armairuetan giltzatzen gaitu.
- Indarkeriari aurre egiteko baliabide publikoak ez dira nahikoak.



### Arrazakeriak akatzen gaituelako:

- Ez ditugu ahazten hainbat arrazoiengatik euren herrialdea utzi dituzten pertsonen bizitzak.
- Emakume\* etorkin eta errefuxiatuek mugetan jasaten duten indarkeria matxista eta kriminalizazioa salatzen dugu.
- Espazio publikoa hartzeko dugun eskubidea mugatzen dute gure janzkeragatik.
- Legez kanpoko egoeran gauden emakumeak\* eta atzeritarren legea jasaten dugunok bereziki babesgabe gaude indarkeria matxistarekiko.
- Nazioarteko zaintza-sarea osatzen dugu: gure seme-alabak eta adindunak beste emakume\* batzuen esku uzten ditugu han, hemen zuenak baldintza oso prekarioetan zaintzeko.

**Horrenbestez, emakumeek, lesbianek, transek, migratutakoek gure aniztasun osoan PLANTO EGINGO DUGU! Eta martxoaren 8an greba feministarako deialdia zabalduko dugu EZETZ esateko, nahikoa dela, hitz-jario ustelekin eta ekintzen eskasiarekin nekatuta gaudela, diskurtso hutsalek ez zaizkigula jadanik balio:**

- Ekonomia eraldatu nahi dugu. Merkatuari so egin beharrean, pertsonen bizitzak eta lurra erdigunean jarriko duen ekonomia bat eraikitzea sustatuko dugu. Enpleguen eta zaintza lanen bidezko eta berdintasunezko banaketa nahi dugu, eta ondasun komunak pribatizatzeari utz diezaiotela exijitzen dugu.
- Egungo gizarte eredu eta eredu ekonomikoa berraztertu nahi dugu. Ez dugu emakumeak\* eta natura esplotatzeaz batera, gu pobretu eta gure bizitza zein burujabetza garatzeko baliabideak lapurtzen dizkigun sistemaren partaide izan nahi.
- Sexuaren arabera lan banaketa suntsitu nahi dugu, eta pertsona zein erakunde publiko orok zaintzen kudeaketan duen ardura bere gain har dezala.
- Atzeritarrei buruzko legea, migrazio politikak eta gizarte politikak etengabe gogortzen eta murrizten ari dela salatzen dugu, horiek guztiek emakumeak\* larri erasaten dituztelako.
- Hierarkiak ezartzen eta pertsonen ezaugarri bereizgarriak zigortzen dituen egungo pentsamendu arrazista eta kolonialarekin hautsi nahi dugu.
- Politikan eta ekonomian erabakitzeak ahalmena duten eremuetan berdintasunez parte hartu nahi dugu; espazio horietan, ikuspegi feministaz gain, ikuspegi intersektionala ere txertatu nahi dugu, jatorri, klase, adin, etnia, aniztasun funtzional, sexu joera eta genero identitatearen ondorioz zeharkatzen gaituzten diferentziak aztertzeak.
- Indarkeria mota orotatik aske dagoen bizitza nahi dugu, gure gorputz, gure sexualitate eta gure lurraldeari dagozkien erabakiak hartzeko dugun eskubidea aitortu diezagutela.

## nola egin dezaket m8ko grebarekin bat?



Lantoki eta ikasgeletan **lanuezte**etara batuz.



Herri eta hirietako **mobilizazio**etara joanez, bi hitzordu nagusi: 12:00 eta 20:00. **OÑATI**n 19:00etan.



**Amantala** (edo beste edozein tresna) balkoitik eskegiz zaintza lanak azaleratzeko.



Merkatuan **kontsumitze**ari utziz, batez ere esplotazioaren ikur diren enpresa handietan, objektutzat hartzen gaituztenak.



**Greba zabalduz** eta zure eskualdean antolaketan parte hartuz. Mobilizazioetan zure eremuko aldarrikapenekin blokea antolatu dezakezu. **Ikasleen lanuzte** eta **mobilizazioekin** bat eginez.



**Zaintze**ari utziz, lan hori beste emakumeen\* esku utzi gabe. Besteek egin dezatela!



Edonon zaudela **besoko morea** jantzig. Zuk zeuk egin ezazu!

#Emakumeok\*Planto

### PARTE HARTU MOBILIZAZIOETAN !

#### MARTXOAK 3 -

Bailarako **Emakumeon\* Martxa** San Prudentziora. 10:45etan Eltzia kanpoaldean. Bizikletaz eta kotxez fango gara!

#### MARTXOAK 8 -

Nazioarteko **Greba Feminista**. "Emakumeok\* planto!"  
**Elkartaratzeak**: 12:00etan plazan eta Olakuan. 19:00etan plazan.  
 Ixegi amantalak balkoian eta edonon zauzela jarri besoko morea!



**Asko eta askotarikoak gara,  
saretu eta jabetu galitezen elkarrekin!**

**EGITARAU / udaletik**

### ● 'LA CASA DE BERNARDA ALBA'

Federico García Lorca hogeigarren mendeko idazle eta poeta garrantzitsuenetarikoa bat izan zen. 1936an, bera hil baino hilabete batzuk lehenago, *La casa de Bernarda Alba* idatzi zuen. Garai bateko matxismoaren adibide argia da obra hori. Berdintasun eza eta emakumearen aurkako indarkeria, ikasitako kultur ereduetatik elikatzen baitira.

**MARTXOAK 5.** Literatur topaketa, 18:30ean, kultur etxean

(Izena emateko: 943716111 edo [liburutegia@onati.eus](mailto:liburutegia@onati.eus))

**MARTXOAK 11.** Antzerki emanaldia, 19:00etan, Santa Ana antzokian.

Pabellón N° 6 antzerki laborategiak sortu eta Itziar Lazkanok zuzendutako antzezlan.

### ● 'ZINEGOAK HEDAPENA' GAY-LESBO-TRANS zinema

**MARTXOAK 6,** 19:00etan Kultur Etxean

Film laburren emanaldia : *The migrant mixtape; Tailor; Marguerite; Little potato; Tarde para el recreo* eta *Ornitorrinco* (Azpigituluak euskaraz edo gaztelaniaz).

**MARTXOAK 13,** 19:00etan Kultur Etxean

Film luzea: *Au-delà del l'ombre* (azpigituluak gaztelaniaz).

### ● 'EUSKAL EMAKUMEEN DOINUAK'

**MARTXOAK 9,** 19:00etan, udaletxeko pleno aretoan

Emakume konpositore euskaldunek sortutako kantuak Ganbara Abesbatzaren eskutik.

Gonbidapenak Txokolateixan egongo dira eskuragai.

### ● TAILERRA: AUTODEFENSA FEMINISTA

Bi data aukeran: Martxoaren 17an eta Maiatzaren 5ean. (oraindik lekua dago).

Izena emateko: 943780411 edo [abeltran@onati.eus](mailto:abeltran@onati.eus).

**EGITARAU / Oñatiko Sare Feminista**

### ● 'SAN PRUDENTZIORA MARTXA! GORA GREBA FEMINISTA!'

**MARTXOAK 3.** 10:45ean. Eltzia kanpoaldean (Bizikletan edo kotxeetan joango gara)

### ● DOKUMENTALA: 'A tiro de piedra de la cárcel'

**MARTXOAK 7,** 10:30ean Kultur Etxean

Dokumental emanaldia eta solasaldia (Elkar Heziren eskutik).

### ● EMAKUMEOK\* PLANTO!

**MARTXOAK 8**

Kontzentrazioak 12:00etan plazan eta Olakuan, eta 19:00etan plazan. Nazioarteko Greba Feminista. Eteki amantala balkoian eta edonon zaudela jarri besoko morea!

### ● ZINE KLUBA Anahi Berneri-ren *Alanis* (Argentina, 2017) filma

**MARTXOAK 8,** 20:00etan, Kultur Etxean

### ● EMAKUME ARTISAUEN AZOKA

**MARTXOAK 10,** herriko emakume artisauen azoka 10:00etan, plazan

### ● EMAKUMEON\* BAZKARIA ETA 'LIHER' TALDEAREN KONTZERTUA

**MARTXOAK 10,** Antixena gaztetxean

\*Emakume kategoria erabiltzen jarraitzen dugu gure egungo errealitatean politikoki eragiteko oraindik baliagarria delakoan, nahiz eta sexu-genero sistemak markatzen duen binomioaz gaindi bizipen, ibilbide ahalmen eta identitate anitzak ere bagaren (bollerak, trans...)

### ● 'ANTIXENA FEMINISTA: TERTULIA INTERNAZIONALISTA'

**MARTXOAK 14.** 18:30ean Antixena gaztetxean

### ● MENDI MARTXA ANDRAITZERA

**MARTXOAK 24.** 10:00etan Santa Marinen



AMETS BELTRAN DE GEBARA  
udaleko Berdintasun teknikaria

## “ OÑATI, BERDINTASUNA LANTZEN DABILEN HERRIA

Nor naizen? Bada, Amets naiz, egun Oñatiko Udalean Berdintasun Teknikari lanetan dihardudana. Zein izango den nire egitekoa? Oñati, herri parekideago bat eraikitze bide horretan tresnak, baliabideak, estrategia eta energia jartzea. Norekin? Oñatiar ororekin, baina bereziki, emakumeekin. Gure ahalduzterik gabe, nekez lortuko dugulako gizarte juxtu, orekatu eta jasangarriago bat.

Esan gabe doa, Berdintasun Sailak, herrira irekita eta herritarren zerbitzura egoteko bokazioz sortuak izan direla. Hortaz, genero parekidetasuna helburu duen edozein ekintza, jarduera, kexa, nahiz iradokizunak ongi etorriak izango dira gurean!

Eta Martxoak 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna bertan dela probestuz, hortxe dihoakizue, Sare Feministak, Elkar Hezik eta udaleko sail ezberdinek egositako programa.

Bukatzeko martxoaren 8ko greba feministarako deialdiari bide eman nahiko nioke. Muga guztiak gaindituko dituen greba feminista bat da proposatzen dena: aldarrikapenak lan munduaz harago doaz, lanaren kontzeptua birplanteatu nahi dugu, eta horretarako zaintza betebeharreia eta kontsumoari lotutako lanuztearen aldeko apustua egitera gonbidatzen zaituztet oñatiar emakume guztiak. Emakumeok, planto egin dezagun!

Mundua geldituko dugu, mundua mugitzeko!



“ Agurtzane Basterra / Bidaia zalea

# “Adikzio bat bezalakoa bihurtu da bidaiatzea”

> Asia eta Ozeaniako hainbat herrialdetan ibili da bost urtez Agurtzane Basterra

Oñatin zeukan lana amaitu eta bizi-esperientzia berrien bila abiatu zen Agurtzane 2012ko abenduan, India aldera mutil-lagunarekin batera. Kanpoan urte eta erdi egitea zen asmoa, baina ia bost urte izan dira, eta tarte horretan Asia eta Ozeaniako hamabi herrialde ezagutzeko aukera izan du. Hurrengo bidaia ere buruan dauka jada.

**Urte eta erdirako asmoz abiatu eta ia bost urte egin dituzu kanpoan. Nolatan?**

Zelanda Berrian lana egiteko urtebeterako bisa lortu genuen. Orduan, asmoa zen, sei hilabetez bidaiatzea Asian barrena, eta gero Zelanda Berrira joatea, lanera eta inguruak ezagutzera. Bertan gustura geundenez, luzatu egin genuen bisatua beste bi urte eta erdiz, eta Zelanda Berrian aurreztutako diruarekin, beste hamar hilabete eman ditugu bidaiatzen.

**Zergatik Asia?**

Zelanda Berrira joateko beste aukera bat zen Hego Amerikatik joatea, baina, Asia askoz seguruagoa da, eta era honetako gure lehen bidaia zenez, bertatik joatea erabaki genuen.

**Zer sartzen da motxilan era honetako bidaia bati ekiteko?**

Aitortu behar dut, badaezpada gauza asko sartu nituela, baina gerora ikusi dut askoz gutxiagorekin ere ibil daitekeela,

eta, gainera, motxila arinagoa da.

Garrantzitsuen da gogoa eta ilusioa. Espektatibarik ez eramatea ere inportantea da, leku batzuk, India adibidez, gogorak direlako. Jarrera irekia eraman behar da, eta gogoa; jendea ezagutzeko gogoa, kultura ezberdinak bizitzeko, jakiak dastatzeko... Eta egoera ezberdinetara moldatzeko malgutasuna edukitzea ere inportantea da, jakina.

**Ez duzu dirua aipatu.**

Ez da diru askorik behar bidaiatzeko. Asia merkea da, erosotasunak alde batera uzteko prest baldin bazaude; janaria, lo egiteko lekuak, garraioa... merkeak dira, eta auto-stop egitea ere seguru da. Gainera, ostatua ordaindu gabe bidaiatzeko aukera bat baino gehiago dago. Guk, batz bestea, eguneko 20 eta 30 euro arteko aurrekontua geneukan, bi lagunendako.



**Zer aurkitu duzu ekialde urruneko inguru horietan?**

Paraje ikaragarri asko, eta, batez ere, jende oso-oso ona, pertsona bikainak. Ezagutu ditut kultura desberdinak, ohitura eta bizitzeko modu oso ezberdinak. Bizipen eta esperientzia asko izan dira, mundu ikuskerara aldarazi didatenak, eta piztu dutenak nigan leku gehiago ezagutu eta deskubritzeko gogoa; adikzio moduko bat bihurtu da leku berrietara joatea, eta errealitate berriak bizitzea.

**Guretzat exotikoak diren herrialdeetan ibili zara. Ondo moldatu zara?**

India oso gogorra egin zitzaidan. Bisitatu genuen lehenengo herrialdea izan zen, eta psikologikoki ez nengoen prestatuta; hango pobrezia, zikinkeria, usaina, trafikoa... Zaplasteko bat izan zen, baina, hala ere, gogoa daukat bueltatzeko.

Gainerako lekuetan erraz moldatu gara. Herrialde desberdinak dira, baina malgutasunez jokatzeko baduzu, eta tokian tokikoa bizitzen saiatzen bazara, bertako jendeak asko laguntzen dizu eta orduan

“ Bidaiatzen hasteko leku egokia da Asia. Seguru da eta merkea, erosotasunak alde batera uzteko prest baldin bazaude, behintzat

## > Elkarriketa

oso samurra da.

Ezusteak ere egoten dira, jakina, baina horiek ere bidaiaren parte dira, eta, azkenean, gauza negatiboak ere positibo bihurtzen dira, horiek kudeatzen jakin behar duzulako, eta ikasi egiten duzulako pertsona bezala.

### Berdinak al dira joan zen Agurtzane eta oraingoa?

Uste dut esperientzia honek asko aldatu nauela pertsona bezala. Erlatibizatzen ikasi dut, gauza gutxiarekin bizitzen ikasi dut, eta, batez ere, pertsonak eta beste kulturak baloratzen ikasi dut. Toki ezberdinetako jende asko ezagutu dut, eta gurekiko izan duten tratua beti izan da ona, eta horrek aldatu egiten zaitu. Pertsona bezala garatzen lagundu dit, zentzu askotan.

### Bost urte hauetan batutako informazio asko daukazu. Partekatzerik pentsatu al duzu?

Informazio asko daukat, bai: non lo egin dugun, zela mugitu garen, zein aukera dauden ostatu ordaindu barik bidaiatzeko, nondik nora ibili garen... Baina oraindik ez dut erabaki zein forma eman. Dena den, norbait interesatuta baldin bada, etor dadila lasai. Askok gustatuko litzaidake horrelako bidaiaren bat egiteko asmotan daudenei laguntzea, beldurra galtzen batez ere.

### Oker ez banago, hurrengo bidaiarekin buruan omen duzu jada.

Bai. Urtebetez egongo naiz hemen, lanean, eta datorren urtean Estatu Batuetara eta Hego Amerikara joango gara. Orain egin dugun bezala, asmoa da, tartean urtebetez edo gelditzea lanean Txilen, eta gero bidaiatzen jarraitzea.

#### 1. INDIA: 5 aste

India oso herrialde gogorra da. Psikologikoki indartsua izan behar zara hango errealitateari aurre egiteko. Hala ere, bueltatzea gustatuko litzaidake. Vicente Ferrer Fundazioko proiektuak ezagutzera joan nintzen. Oso esperientzia gomendagarria. Ganges erreka sakratuaren ertzean dagoen *Varanasi* hiria nabarmenduko nuke. Oso toki mistikoa da. Lau urtean behin ospatzen den *Kumbh Mela* hinduisten erromesaldia bizitzeko aukera izan nuen bertan.



#### 2. TAILANDIA: Hilabete

Indian egon ondoren, Tailandiako hondartza ederretan arnasa hartu nuen. Kaleko janaria gozatu nuen. *Koh Tao*-n snorkel egitea gozada bat izan zen. *Ao Nang* eta *Railay* paradisuak dira eskalada zaleentzat: hondartza ederrak eta paretak bertan.



#### 3. LAOS: Hilabete

Espektatiba berezi barik joan nintzen eta, beharbada, herrialde gustokoena bilakatu zen. Jendea benetan jatorra da, eta ni joan nintzenean behintzat, oso turista gutxi mugitzen ziren. *Luang Prabang* ezaguna da goizero monje budistak tenplutik atera eta herrian zehar janaria eskatzen dutelako. *Vang Vieng*-eko parajeak izugarriak dira eta eskalatzeko ere toki oso polita da. Laos toki ikaragarria da motor bat alokatu eta galtzeko.



#### 5. VIETNAM: Hilabete

*Hoi An* hiria ederra da. Bizikleta alokatu eta hondartzarako bidean bertako nekazariak nola bizi diren ikus daiteke. Garai hartan munduko handiena zen *Phong Nha* kobazuloan ibili nintzen txalupan. *Halong Bay* badiako parajeak ikusgarriak dira, eta leku ederrak daude senderismoa, urpekaritza edo eskalada praktikatzeko.



#### 6. INDONESIA: 19 egun

Zelanda Berrira lanera joan aurretik erlaxatzeko asmoz *Bali* eta *Gili* iletara joan nintzen. Ur turkesa eta hare zuriko hondartza ederrak daude bertan, baina jendez beteta egoten dira.



#### 4. KANBODIA: 17 egun

*Angkor Wat*-eko tenpluak ikaragarriak dira. Goizean goiz jaiki eta bertan eguzkia ateratzen ikustea, zoragarria. Arrantza ere egon nintzen. Erreka gainean bizi ziren txabolatan. Gau bat pasa nuen bertako familia baten etxean. Oso esperientzia berezia.



#### 7. ZELANDA BERRIA: 3,5 urte

Nire bigarren etxea da Zelanda Berria. *Christchurch* hirian bizi nintzen arren, furgoneta hartu eta asteburuetan inguruko herriak ezagutzera joaten nintzen. Iparraldeko irlan ere ibili nintzen bi hilabetez. 'Postal herrialdea' bezala bataiatu dut; oso ederra da, baina bertan bizitzeko aspergarri samarra ere bai.



#### 8. TONGA: Astebete

Zelanda Berriko negutik ihes egin eta *Tonga* irlara joan nintzen astebeterako, nire 30. urtebetetzea epelean ospatzera. Kultura polinesiarra ezagutu eta hondartza ederrez gozatu genuen.



#### 9. TAILANDIA: 2 hilabete

Zelanda Berria utzi ostean Australiara joatea zen asmoa, baina lagun tailandiar batek monje budista ordenatuko zela esan zidanean planak aldatu eta bere zeremoniara joan nintzen. Oso hunkigarria izan zen, eta uste dut oso zorteduna naizela halako bizipena izateagatik. Inguruko irla batzuk ezagutzeko ere aprobetxatu nuen bidaia.

#### 10. MALASIA: 19 egun

*Langkawi* irlak benetan harritu ninduen. Motorra hartu eta bertan galtzeko egokia da. Baina gehien txunditu ninduen *Perhentian* irla da; snorkel ikaragarria dago bertan eta oso lasaia da.



#### 12. INDONESIA: Hilabete, Sumatra irlan

Bigarren aldia zen Indonesian, eta Sumatrara joan ginen. *Berastagi*-ko sumendia igo nuen, *Bukit Lawango* oihanean orangutanak ikusi nituen eta *Banda Aceh*-ko tsunamiaren ondorioak ikusi nituen. Ramadan garaian joan ginen herrialde musulman honetara. Autostop bidez mugitu nintzen.



#### 11. FILIPINAK: 2 hilabete

Maitemindu egin nintzen. Asiako tokietatik ez-asiatikoena da. Espainiarrak bertan egon zirela nabari da: kristauak dira eta janaria hemengoaren oso antzekoa da. Beraien plater tipikoa txerria da eta lentejak ere badaude! Jendea oso lagunkoia da eta inguru zoragarriak ditu. Ez dago masifikatuta oraingoz, eta toki oso gomendagarria da.



#### 13. JAPONIA: 5 aste

Ikaragarria. Sinestezina. Etorkizuna da Japonia. Diru asko ez gastatze aldera kanping denda batekin joan nintzen, ibilbide turistikoetatik aldentuta. Hiriak bisitatu nituen, baina, batez ere, herrixketan ibili nintzen. Oso turista gutxi ikusi nuen eta horrek jende zoragarria ezagutzeko aukera eman zidan.



#### 14. TAIWAN: 3 aste

Taiwango lankide bat ezagutu nuen Zelanda Berrian eta horregatik joan nintzen bertara. Janaria benetan goxoa da, eta nahiz eta irla oso txikia izan, gauza asko daude ikusteko. Kanping dendarekin ibili ginen, hondartzetan lo eginez. Trenez mugitu ginen gehienbat, eta autostopez ere bai. Jendea oso jatorra da; lagun atzerritarak izatea gustatzen zaie eta horregatik gerturatzeko dira laguntza eskaintzera.



# ULMA Taldeak 1,45 milioi euro lortu ditu Europar Batzordetik osasun arloko proiektu bat garatzeko




## 'Retinal' du izena proiektuak, eta erretinopatia diabetikoa garaiz diagnostikatzeko soluzio integral bat garatzea du helburu

ULMA Taldearen Enpresa Sustapenerako eta Berrikuntzarako Zentroak 1,45 M€-ko dirulaguntza jaso du Europar Batzordetik, osasun sektorera bideratutako proiektu bat garatzeko. Diabetikoen artean ikusmen murrizketa eragiten duen eta itsutasuna eragin dezakeen erretinopatia gaitza garaiz eta era automatikoa diagnostikatzeko, adimen artifizialean oinarritzen den soluzio integrala (*softwarea* eta *hardwarea*) garatzea da helburua.

Bati baino gehiagori arraroa irudituko zaio, baina ULMA Taldea osasun arloko proiektu bat lantzen ari da. Eta ildo horretan bultzada inportantea jaso du, Europako Batzordeak 1,45M€-ko laguntza eman baitio *Retinal* izeneko proiektua garatzeko.

Europako Batzordeak 2015ean saritu zuen aurreneko aldiz proiektu hau *Open Disruptive Innovation Scheme* kategorian, proiektuaren bideragarritasuna aztertzeko. Eta iaz berriro saritu zuen kategoria berean,



Retinal proiektuaren sustatzaileak

*Horizon 2020* programaren ETE tresnan bigarren fasera aurkeztu ziren 480 proiektuen artean aukeratuta, beste 8rekin batera.

Europak ULMA taldearen proiektuaren sendotasuna, izaera berritzailea eta gizartean izan dezakeen inpaktua azpimarratu ditu, eta, esan bezala, 1,45M€-ko babes ekonomikoa eman dio, hurrengo bi urteetan zehar garapenak biribildu, demostrazioak eta balidazioak burutu eta produktua merkaturatzeko prest uzteko.

### BOST URTEKO LANA

ULMA Taldeak bost urte darma *Retinal* proiektua garatzen, osasunaren, oftalmologiaren eta teknologiaren alorretan Europan prestigio ezaguna duten zenbait erakunderen



Amaia Igartua  
ARKITEKTURA ESTUDIOA

-Zaharberritzeak -Ikuskaritza Teknikoak (ITE) -Ziurtagiri energetikoak (CEE)  
-Diru laguntzen gestioa-igopailuen proiektuak -Barne dekorazioa-Jarduera lizentziak  
tel: 677 31 20 57 • email: amaiigartua@gmail.com • Oñati




COINBROKER  
ASEGURU ARTEKARITZA  
CORREDURIA DE SEGUROS

Arantzazuko Ama Kalea, 9 • 20560 Oñati

☎ 943 089 000 ✉ amati@coinbroker.eus

🌐 www.gipuzkoa.coinbroker.eus



## Bi urte barru produktua komertzializatzeko prest egotea nahi du ULMAk

partaidetzarekin.

*Retinal* proiektua IMEI (Irudi Mediko Ez Inbaditzailea) izeneko ekimen zabalago baten lehen urratsa da. Ekimen hori ULMAk gidatzen du, eta bere helburua da plataforma integral bat garatzea, irudi medikoen analisisan oinarrituta hainbat gaixotasun garaiz diagnostikatu ahal izateko.


Azken urteetan, enpresa dibertsifikaziorako politika garatzen ari da ULMA, bere Sustapen Zentroaren bitartez, balio erantsi handiko enplegua sortuko duten negozio berriak garatzeko asmoz, eta Europatik jasotako babes honek indartu egiten du ahalegin hori.

## Erretinopatia diabetikoaren prebentzioa unibertsalizatu

Diabetesaren Nazioarteko Federazioaren arabera, diabetesa pandemia orokorra bilakatzen ari da; gaur egun munduan 425 milioi diabetiko daude (%45a diagnostikatu gabe) eta 2045 urterako hazkunde nabarmena estimatzen da, 629 milioira iritsiz. Euskal Herri mailan diabetesaren prebalentzia %10 ingurukoa da.

Erretinopatia diabetikoa, diabetesak begietan eragiten duen gaixotasun nagusia da; erretinan lesio ezberdinak eragiten ditu (mikroaneurismak, hemorragiak, etb.) eta ondorioz ikusmenari erasaten dio. Hasieran ez da aldaketarik antzematen ikusmenean, baina denborarekin ikusmenaren galera eragiten du eta, kasu aurreratuenean, itsutasuna eragin dezake. Horregatik, ahalik eta azkarren detektatzea komeni da, konponezinak diren lesioak ekiditeko.

Eta hori da, hain zuzen, ULMA garatzen ari den *Retinal* proiektuaren helburua. Alde batetik, adimen artifizialean oinarritzen den software bat garatu du. 'Machine Learning' eta sare neuronalen modelu konplexuko algoritmoak erabiliz erretinako argazki digitaletan lesio ezberdinak era automatikoki detektatzeko gai dena eta, ondorioz, argazkia patologikoa edo osasuntsua den identifikatzen duena. Eta, bestetik, hardwarea (irudiak hartzen dituen tresna) garatzen ari da, teknologia honen erabilera zabaltzea ahalbidetuko duena, baliabide gutxien duten osasun zentroei eskuragarriago eginez; gaur egun aparatu hauek oso garestiak dira (10.000-40.000€) eta ULMAren helburua da merkatuari tresna ekonomikoago bat eskaintzea, beharrezkoa den kalitatea bermatuz eta, gainera, eramangarria izango dena.



## Iskemiak, alzhemerra eta parkinsona hurrengo erronka

IMEI (Irudi Mediko Ez Inbaditzailea) programaren barruan, osasun arloko beste proiektu batzuk garatzen ari da ULMA. Hala, erretinako irudietan AVR parametroa neurtzeko software-a garatuta du, arrisku markagailu tresna bezala erabiltzeko, arrisku taldeak estratifikatuz isileko garun-iskemia gaixotasunean iktusaren prebentziorako. Baina ebidentzia zientifikoa gehiago garatzeko zain daude.

Beste gaixotasun neurodegeneratibo batzuen (alzhemerra eta parkinsona) inguruan ere lanean dihardute, bainaoraingoz hasierako fasean dauden proiektuak dira..

Osasun arloan ez ezik, energiaren eta sistema txertatuen arloan ere ari da negozio aukera berriak lantzen ULMA Taldeko Enpresa Sustapenerako eta Berrikuntzarako Zentroa. ULMA taldeko negozioen salmenten eta emaitzen portzentaia bat bideratzen ditu ULMAk zentro honetara, balio erantsi handiko lanpostuak sortuko dituzten negozio aukera berriak sustatzeko helburuarekin.



# Beratu jaialdia

Udalak herriko eragileekin eta Ahotsenearekin elkarlanean antolatu duen musika jaialdia da Beratu. Kontzertuak, tailerrak, hitzaldi-solasaldiak, disko-azoka eta topaketak egongo dira astebetez, musikaren alde hurbilaz gozatzeko helburuarekin



Eragile askoren elkarlanaren emaitza da Beratu jaialdia

Egungo euskal musikaren hiriburu eta topagune izango da Oñati martxoaren 18tik 25era, Beratu Jaialdiaren eskutik. Udalak herriko hainbat eragilerekin eta Ahotsenearekin elkarlanean sortutako ekimena da, musika entzuteaz gain, musikaren ertz ezberdinak bizitzeko modu berri bat proposatu nahi duena: gertukoa, hurbila.

*Beratu* jaialdiak ez du eskaparatte hutsa izan nahi, topagunea baizik; musikariak gertutik ezagutzeko, eta bere egoeraz eta etorkizunaz eztabaidatzeko lekua izango da jaialdia. Kontzertuak, musikarien eta profesionalen arteko topaketak, mahai inguruak etab. antolatu dira horretarako. Jaialdi transbertsala izango da, sortzaileak eta eragileak batuko dituen.

*Beratu* jaialdiak euskal musika eszena garaikidearen nondik norakoak ezagutzeko aukera eskainiko du. Zuzeneko musikaz gozatzeko aukeraz gain, musika ezagutza partekatze gunea ere izango da Oñati astebetez, euskal musikaren nobedadeak eta korrante berriak ezagutzeko aukera eskainiz.

## EGITARAU BEREZIA

Ondoko taulan ikus daitekeenez, mimo handiz prestatutako egitaraua eskainiko du *Beratu* jaialdiak.

Asteari hasiera emateko, *Maria Arnal* eta *Marcel Bagés* kataluniarren musikaz gozatzeko aukera izango dugu, ahozko tradizioz abiatzen diren doinuak.

Hilaren 23an 'Musik Fem' ekimenaren inguruko mahai ingurua egongo da, emakumeak musikaren industrian eta, zehazki, zuzeneko musikan duen presentzia hitz egiteko. Eguna borobiltzeko, rock alternatiboa egiten duen *Lukiek* hirukoak kontzertua emango du gaztetxean.

Hurrengo egunean, martxoak 24, 'Ahotsenean elkartuko gara' izeneko jardunaldiak izango dira Eltzian (egitaraua hurrengo orrian), eta gau partean *Delorean* (Donostia) eta *Lumi* (Lapurdi) taldeen kontzertuak izango ditugu Gaztelekuan.

Eta astea borobiltzeko, hilaren 25ean musika sortzeko aplikazioen inguruko tailerra egongo da gaztetxoei zuzenduta, *DJ Makala*-ren eskutik, eta *Audience* rock talde bizkaitarraren kontzertua.



## MARTXOAK 18, IGANDEA

● Beratu jaialdiaren aurkezpena.  
**Maria Arnal**  
eta **Marcel Bagés**-en



kontzertua, Santa Ana aretoan

## MARTXOAK 23, OSTIRALA

● '**Musik Fem**' mahai ingurua. Emakumeak musikaren industrian duen tokia aztertzeke solasaldia. Parte hartuko dute: **Lorea Argarate** (Las Tea Party); **La Basu**, rap abeslaria, **Ines Osinaga** (Gose) eta **Amaia Ispizua** (Get In, MIM elkarte, EHME elkarte).



● Kontzertua. Rock alternatiboa lantzen duen **Lukiek** hirukote bizkaitarra. Gaztetxean. Dohainik.

## MARTXOAK 24, LARUNBATA

● '**Ahotsenean elkartuko gara**' jardunaldiak Eltzian (ondoko orrian).  
● Musika jaialdia. Pop eta folk elektronikoa Donostiako **Delorean** eta Lapurdiko **Lumi** taldeen eskutik Gaztelekuan.



## MARTXOAK 25, IGANDEA

● Haurrentzako musika sortzeko aplikazioen **tailerra** DJ Makalaren eskutik Gaztelekuan.  
● Kontzertua. **Audience** rock talde bizkaitarraren emanaldia (kalean, lekua zehaztu barik).



# 'Ahotsenean elkartuko gara'

» Euskal musikaren eszena berrian sortzen diren kezka, zalantza eta galderen inguruko gogoeta egiteko jardunaldia.

» Arloko profesionalen eta musikarien arteko topakeak, hitzaldiak eta zuzeneko emanaldiak egongo dira Eltzian.

Durangoko Azokaren baitan sortutako gunea da Ahotsenea, eta Oñatiko *Beratu* jaialdian ere izango du bere lekua, martxoaren 24an antolatuko den *Ahotsenean elkartuko gara* jardunaldiaren bidez.

Autogestioak, digitalizazioak eta belaunaldi aldaketak, besteak beste, Euskal Musikaren eszena berri baten aurrean kokatu gaituzte. Eta, hain zuzen, eszena berri horretan sortzen diren galdera, zalantza eta kezka ezberdinei erantzunak bilatu eta ematea izango da jardunaldiaren helburua.

## TOPAKETAK, HITZALDIK ETA AZOKA

Lau zutabe nagusi izango ditu ekimen honek. Alde batetik, profesionalen eta musikarien arteko topaketa egingo da. Sail ezberdinetan nabarmendu diren profesionalak (programatzaileak, diskogintzako eragileak, managerak, kazetariak etab.) musikariekin bilduko dira *speed meeting* edo elkartzeko azkarrak eta *world cafe* dinamikak batuko dituen egitasmoan.

Profesional bakoitza eztabaida mahai

batean egongo da eta musikariek 15 minutu izango dituzte horietako bakoitzarekin biltzeko. Bukaeran ondorioak aurkeztuko dituzte antolatzaileek.

Euskal Musikak bizi duen paradigma berria ulertu eta honi erantzunak ematea bilatzen da. Bertan parte hartzeko [ahotsenea@durangokoazoka.eus](mailto:ahotsenea@durangokoazoka.eus) helbideen eman behar da izena martxoaren 18a baino lehen.

Bestalde, hitzaldi interesgarriak ere egongo dira musika arloko profesionalen eskutik. Batetik, *Uso Pop* (Sara, Lapurdi) jaialdiaren antolatzaileek jaialdiaren nondik norakoak azalduko ditzuzte, eta, bestetik, MIE elkarteak (Musika Industriaren Elkartea) musika elkarteek musikariei eta eragileei ekartzen dizkieten onurez hitz egingo dute.

Horiez gain, Eltzia eraikina Ahotsenea plaza bilakatuko da, eta lau talderen proposamenak zuzenean entzuteko aukera egongo da. Gainera, musika taldeek beraien diskoak saltzeko aukera izango dute. Horretarako, autoekoizpen/disko azoka bat antolatuko da Eltzia patioan.

## EGITARAUA

**MARTXOAK 24,  
LARUNBATA,  
ELTZIAN**

**09:30** Ongi-etorri kafea

**09:50** Talde banaketa

**10:00** Topaketak. Musika arlo ezberdinetako profesionalen eta musikarien artean.

**11:30** Kafea

**12:00** Hitzaldiak, 20 minutukoak:

-Uso Pop (Sara, Lapurdi) jaialdiaren antolatzaileak.

-MIE elkarteak (Musika Industriaren Elkartea)

**13:00** Ondorioen aurkezpena

**13:30** Bazkaria

**16:00** Musika azokaren ate irekiera

**16:30** Kontzertu akustikoak. Ordu erdiko emanaldi irekiak, publiko zabalarentzat

● La Basu

● Hiri Galduak

● Morau

● Inun

**20:30** Jardunaldiaren amaiera

Bezeroen beharrei  
erantzuteko prest!



**GUALBI**  
AHOLKULARITZA

- ◆ Kontabilitate administratiboa
- ◆ Fiskalitatea
- ◆ Lan-arloa
- ◆ Kontu-ikuskaritza
- ◆ Merkataritza
- ◆ Abokatuak

Euskadi Etorbidea, 6

Tlf.: 943 78 16 48

email: [maitane@gualbiasosores.com](mailto:maitane@gualbiasosores.com)

[www.gualbiasosores.com](http://www.gualbiasosores.com)

# Herri bat, hainbat jatorri

Oñatin elkarbizi diren kultura ezberdinak ezagutzeko afariak antolatu ditu **'Auzoko'** ekimenak, Gaztetxearekin elkarlanean

**E**rdal hiztunak euskarara gerturatzea helburu duen ekimena da AUZOKO, baina, beti ere kanpotik datozen pertsonen hizkuntza eta kultura aitortuz eta balioan jarriz.

Bi hanka dituen ekimena da Auzoko: euskarara hurbiltzeko gogoia duten pertsonak (*auzokideak*) eta euskal hiztunak (*auzotarrak*). Eta asteen behin elkartzen dira, elkarrengandik ikasi eta euskara praktikatzeko asmoz, modu ludikoan beti ere (mahai-jokoak, tailerrak, kantak, irteerak...).

Ildo horretan, iaz afari tematiko bat antolatu zuten, Pakistaneko jakiak dastatu eta bertako ohiturak eta kultura ezagutzeko asmoz. Oso erantzun ona izan zuen afariak, jendea oso gustura egon zen, eta hori ikusita, aurten ekimen horri jarraipena ematea pentsatu dute Auzoko-lagunek, Gaztetxearekin elkarlanean.

Hala, martxoan hasi eta ekainera bitartean, lau herrialde ezberdinetako jakiak dastatzeko aukera egongo da, eta, gainera, ekimena borobiltzeko, aurkezpen saioak ere egingo dira, unean uneko herrialdeko kultura eta ohituren berri izan dezagun.

Aurreneko afaria Paraguitarra izango da, martxoaren 22an, Gaztetxean (21:00), eta aurkezpena hilaren 19an, Gaztetxean hau ere (19:00). Apirilean saharatarra izango da afaria, maiatzean nepaldarra eta ekainean Dominikar Errepublikakoa. Herritar guztiak daude gonbidatuta. Gaztetxean azaldu eta listo. Borondatearen truke.

## AFARI PARAGUITARRA / martxoak 22

**'Herri bat, hainbat jatorri'** ekimenaren baitan antolatu den aurreneko afaria paraguitarra izango da. Duela hiru hilabete Oñatira iritsi ziren Patricia Toñanez, Damaris Wrubel eta argazkian falta den Ivan Acostak prestatuko dute.

Bizimodua ateratzeko asmoz etorri dira Oñatira, bina seme-alabekin, eta lana bilatzen duten bitartean, euskara ikasten ari dira Auzoko programaren bitartez. "Hemengo kultura eta hizkuntza ikasi nahi ditugu, bertan integratu ahal izateko" adierazi digute.

Martxoaren 19an Paraguitari buruzko hitzal-di-solasaldia eskainiko dute Gaztetxean (19:00). Hango hizkuntza, musika, dantza, geografia eta jaki tipikoez hitz egingo dute, besteak beste.

Martxoaren 22ko afarirako, parrillan erretako haragia prestatuko dute hango erara, *sopa sólida* (artoa, gazta, tipula, arrautza eta urunez egina) eta *mandioca*-z (arrautza eta tipulinez erregosia) lagunduta.

Paraguain ohikoa den *terere*-a (infusio freskagarria dastatzeko auker ere egongo da.



Okela erreki paraguitarra



Patricia eta Damaris, terere-a edateko termoarekin

**Etorkinek euskara ikasteko egiten duen ahalegina eskertzeko modu bat da geuk ere beraien kulturekiko interesa agertzea**



**MODA BEREZIA**

Kale Barria, 12  
Tel. Faxe: 943 71 62 40

**CORTABARRIA**

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

**Etxe eta lokalen gestio orokorrak**

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teletel.es

## EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2018-2023

Hurrengo bost urtean Oñatin zer egingo dugu euskararen erabilera areagotzeko? Zer neurri hartuko dugu aurrera egiteko? Zertan eragin behar dugu 2023an Oñati euskaldunago izan dadin?

Galdera horiei erantzungo die euskararen plan estrategiko berria egiteko Udalak abian jarri duen prozesuak. Baina zer da "Euskararen Plan Estrategikoa"? Bada, hitz gutxitan esanda, haxe: datozen bost urteotan Udalak euskararen alorrean non eragin nahi duen eta zein lehentasun izango dituen markatzen duen dokumentua.

### DIAGNOSTIKOA. HERRITARREKIN ELKARRIZKETAK ETA ONLINE GALDETEGIA ( Martxoa - aprila )

Zer egin erabakitzeko, jakina, egoera nolakoa den aztertu behar da aurrena. Lehen egitekoa, beraz, diagnosia egitea izango da. Esparruz esparru eskueran dauden datuak bildu eta egoeraren argazki bat egingo da. Horrela, aurreko planak zer emaitza eman duen eta egoera zein den jakingo dugu.

### PLANA DISEINATZEA, HERRIKO ERAGILEEKIN BATERA ( Apirila - uztaila )

Bestalde, diagnostikoa ahalik eta osatuena izan dadin, alor

eta erakunde ezberdinetako hamar oñatiarri galdeketa bat egingo die Elhuyar aholkularitza enpresako teknikari batek. Horrez gain, nahi duten herritar guztiek ere ekarpenak egiteko aukera izango dute, Udalaren webgunean galdetegia erantzuteko bide bat zabalduko baita. Jasotako informazio guztiarekin dokumentu bat sortuko da, eta lehen fase honetan parte hartu duten pertsonekin partekatu eta kontrastatuko da.

Behin diagnosia eginda, plan estrategikoaren proposamen bat lantzea izango da hurrengo egitekoa. Bilerak ireki batean, herriko eragileekin landuko da zein izango diren datozen urteetako lehentasunak eta zer-nolako neurriak hartuko diren.

Azkenik, proposamena herriko eragileekin landu eta gero, plan estrategikoa izango den dokumentua idatziko da, eta Euskara Batzordean aztertu eta osatu ondoren, Udal Osoko Bilkurak onartuko du.

Beraz, hurrengo bost urtean Udalak euskararen alorrean zer egingo duen eta 2023an non egon nahi duen irudikatzeko prozesuari ekin dio Udaleko Euskara Batzordeak. Eta prozesu osoa koordinatzeko, dinamizatzeko eta gauzatzeko, Elhuyar aholkularitza enpresaren laguntza izango du.

## 'Oxigenoa euskarari 6.000 metrora ere' ekimenean parte hartuko du ikastolak

Mendizaletasuna, herrien arteko elkartasuna, hizkuntza gutxituei babesa ematea eta euskara munduan zabaltzea ditu helburu 'Oxigenoa euskarari 6.000 meotroan ere' egitasmoak. Euskal Herriko zazpi probintzietako 15 gazte eta 10 sherpa gazte harremanetan jarriko ditu eta elkarrekin treking-a egingo dute Himalaian, *Everest*, *Makalu* eta *Cho Oyu* bezalako mendi mitikoen magaletan, Felipe Uriarte (*Mendiak eta Herriak*) mendi-gidaria buru dutela. Tartean, sei milako bi gailur egiteko asmoa dute: *Imja Tse* (6.187) eta *Lobuje Ri* (6.119).

Txantxiku ikastolak harreman estua du Nepalekin, orain dela bi urte 'Nepal Lagunduz' elkartasun ekimena burutu zenetik, eta oraingoan ere ekimen honekin bat egitea erabaki dute, bere baitan dituen baloreengatik: herrien arteko elkartasuna, hizkuntza gutxituekiko babesa, euskararen sustapena eta gazteen autokudeaketa, besteak beste. Hala,



Treking-a prestatzeko lehen bilera Arantzazuko aterpetxean

zeharkaldian parte hartuko duten Gipuzkoako ordezkariak Txantxiku ikastolako ikasleak izango dira.

Espedizioa bera udazkenean egin asmo dute, baina, ordura bitartean antolaketa bide luzea izango dute: proiektuaren gizarteratzea eta saretzea, finantziazioa, azpiegiturak, Euskara-Sherpa hiztegia... Helburua eta gailurra inportanteak dira, baina bidea ere ederra eta emankorra izatea nahi dute.

**OÑATI GARBIKETAK S.L.**

- Komunitate, garaje...garbiketa integrala
- Lurren kristalizatua, dekapatua eta argizari ematea.

Oñakua 17 behea, esk. / Tel: 722 733 712  
argitagarbi@hotmail.com

**ARGITAGARBI**

**Almaraz**  
Inmobiliari gestioa

Tel: 679411444  
www.almaraz.info

**Carmelo Pérez de Almaraz**

"Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabilloi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei diezaguzu".

# ETXEBIZITZEN

## Ikuskapen Teknikoa



» 50 urtetik gorako etxe guztiek, baserriak barne, **EITa** egin behar dute ekainaren 27rako

50 urte edo gehiago duten etxeek EITa (Etxebizitzaren Ikuskapen Teknikoa) egin behar dute ekainaren 27a baino lehen, Eusko Jaurlaritzaren 2014ko dekretuak agintzen duenez. Udalak emandako datuen arabera, 500 inguru dira 2018an ikuskapen teknikoak egin behar duten etxebizitzak Oñatin, eta une honetan ez dira iristen 150era dokumentua udaletxean aurkeztu dutenak.

Atari bakoitzeko bizilagun komunitatearen ardura da EITa egitea, eta horretarako arkitekto edo arkitekto tekniko bat kontratatu behar dute. Begiz egiten den azterketa da EITa, eta hiru atal hartzen ditu kontuan: eraikinaren egoera (estrktura, fatxada, estalkia eta ur sareak (hornikuntza eta saneamendua), irisgarritasuna eta energia eraginkortasuna.

Ikuskapena egin ondoren, etxebizitzan egin beharreko konponketen zerrenda osatuko du teknikoak, bost gradutan sailkatuta: 1. *Berehalakoak* (24 ordutan egin beharrekoak); 2. *Oso premiazkoak* (3 hilabeteko epean); 3. *Premiazkoak* (urtebeteko epean); 4. *Epe ertainekoak* (bi urteren buruan); 5. *Mantentze* lanak.

Ondoren, ikuskapenaren emaitza jasotzen duen dokumentua udaletxean aurkeztu behar dute etxe-jabeek, eta bertan jasotako konponketak egin ondorengo ziurtagiriak ere bai. EITak 10 urterako balioa izango du.

Aurrerantzean, 50 urte betetzen duten etxe guztiek egin beharko dute ITEa, eta horretarako urtebeteko epea izango dute, 50. urte betetzen duten egunetik aurrera.

## Argiteria hobetuko du udalak Bidaurr eta eta Olakua artean eta parroko sarreran

Bidaurretatik San Lorentzorako bidean dauden argi puntuak berriki aldatu ditu udalak, led motako luminariak jarritz, eta orain errepidearen beste aldeko argiteria hobetuko du, Bidaurreta eta Olakua artean. Potentzia handiagoko luminariak jartzeaz gain, argi puntu gehiago ere jarriko dira; Bidaurretako ostatuko fatxadan bi, eta Olakuako 1 zenbaki inguruetan beste hiru.

Bestalde, parrokia aurrealdeko eta Santa Ana aldeko argiteria hobetzea ere erabaki du udalak. Plazako zutoinean, Gaztelekuan eta udaltzaingoan dauden argi-fokuak berri-tuko dira, besteak beste. Udalak 100.000 euroko aurrekontua du aurtengo argiteria hobetzeko. Aipatutakoez gain, Bakardadeo Ama kaleko eta San Lorentzoko 9. areako argiteria ere aurtengo beritzeko asmoa dago.

## Martzelino Zelaia kaleko hormigoizko babesgunean kendu egingo du udalak

Martzelino Zelai kalean, San Martin auzorako sarreran dagoen hormigoizko babesgunea kentzea ezinbestekotzat jotzen du udalak, auzo-bidera sartzeko kamioiek zein autobusek izaten dituzten arazoak kontuan hartuz. Horretarako, baina, bertan dauden bide-seinaleak beste nunbaiten kokatu beharko dira, eta errepide hori (GI-2630) foru aldundiaren eskumenekoa denez, seinaleentzako toki berria adostu eta lanak egiteko baimena eskatu dio udalak diputazioari.



## Olaiturriko estalkiaren proiektua eta Zubillagako berritze lanetarako lizitazioak

Olaiturriko gunean estalkia jarri eta erabilera anitzeko gune bilakatzeko proiektua idatzi eta ondorengo zuzendaritza lanak egiteko lizitazioari hasiera eman dio udalak (120.000€, +BEZ). Bestalde, Zubillagako urbanizazioa berritzeko 3. faseko lanak (auzo-etxea eta eliza inguruak) ere lizitaziora ateratu ditu, 240.000 euroko aurrekontuarekin.

## Apirilean hasiko dira Udanako errepidea konpontzen

Foru Aldundiak jakinarazi duenez, lizitazio fasean daude Udanako mendatean zulatutako errepide zatia konpontzeko lanak. Okerrik ezean, apirilean hasiko dira konponketa lanak, eta bi hilabete eta erdiko epean burutzea aurreikusten da. Lanak errepidea itxi gabe egitea da asmoa, semaforo bidez erregulatuta, baina 40 tn.-tik gorako ibilgailuek debekatuta izango dute bertatik pasatzea lanek dirauten bitartean.



# OÑATIN ELKARREKIN EGIN

## EKINTZAIETZA SUSTATZEKO PROGRAMA

**E**kintzailatza sustatzeko helburuarekin Oñatiko Udalak Mondragon Unibertsitateko Enpresagintzako *Mondragon Team Academy*-rekin batera 2017an hasitako elkarlanari jarraipena emango dio 2018an, **Oñatin Elkarrekin Ekin** programarekin. Helburu nagusia ekintzaileen arteko komunitate bat sortzea da, elkarren artean ikasteko, elkarri laguntzeko eta denon artean dauden eta sortzen diren ideiak, ekimenak eta negozioak aurrera eramanez ahal izateko.

Hauek izango dira 2018an zehar garatuko diren ekintzak:

- Jardunaldi eta mintegiak
- Aholkularitza eta mentorizazio zerbitzua.
- *Gookin* proiektua - Gazteen artean ekintzailatza sustatzeko ekimena.
- Ideiak garatzeko ikaste programa.
- Negozio ideiak martxan jartzeko ikaste programa

### KOMUNITATE JARDUNALDI ETA MINTEGIAK

Jardunaldi eta mintegi hauen helburua Oñatiko ekintzaile, autonomo eta mikroenpresetako kideak euren negozio eta ideien inguruan dauden ezagutza eta tendentzia berriak ikastea izango da. Martxoan hasita eta hilean behineko maiztasunarekin antolatuko dira. Lehenengo jardunaldia **martxoaren 5ean** egitea aurreikusten da.

### AHOLKULARITZA ETA MENTORIZAZIO GUNEA

Gune berri honen bidez banan banakako aholkularitza eta mentorizazio zerbitzu bat eskainiko da; batetik, enpresa edo negozio txiki bat aurrera eramateko orduan menperatzen ez diren hainbat arloetan laguntzeko (gai legalak, fiskalitatea, kontratuak, gai laboralak, merkantilak,...) eta bestetik, proiektu edo ekimen berri bat martxan jartzeko orduan sortzen diren zalantzen inguruan orientazioa jasotzeko.

Gune hau Oñatiko autonomo, profesional eta mikro-enpresetako kideei zuzenduta egongo da bereziki.

### 'GOOKIN' PROIEKTUA

18 eta 26 urte bitarteko gazteei zuzendutako ekimen bat da,



eta Mondragon Team Academy-ko Weif kooperatibak antolatzen du. Orain arte Googaz izenpean Bizkaiko hainbat herritan garatu da eta orain Gookin izenarekin Gipuzkoara hedatzeko helburua du.

Ekimen honen helburua gazteak motibatzea da ideia berriak sortuz eta proiektuak berriak ekiteko. Horretarako, egun osoko ekintza bat antolatuko da, **martxoaren 17an**, Enpresagintza fakultatean. Parte

hartzaileak taldetan banatu eta elkarren artean lehiatuko dira, erronka bati irtenbidea bilatzeko. Talde irabazleak sari bat eskuratuko du eta aukera edukiko du sortutako ideia garatu ahal izateko.

### IDEIAK GARATZEKO PROGRAMA

Ideiak garatzeko programa apiriletik uztailean bitartean jarriko da martxan. Ikaskuntza programa bat izango da, 15 egunean behin egingo dira saioak eta helburua ideietatik abiatu, ideia horiek garatu eta proiektuetan gauzatzea izango da. Saiotik ideiak garatzeko erreminta desberdinak landuko dira eta jarraipena egingo zaio prozesuari tutoretza bitartez.

Edozein pertsonak parte hartu ahal izango du programa honetan, baldintza bakarra ideia bat izatea izango da; negozio ideia bat daukan ekintzailea izan daiteke, edo enpresa bat martxan eta ideia berriak garatzeko helburuarekin dagoen autonomo, profesional eta mikroenpresetako kidea.

### NEGOZIO IDEIAK MARTXAN JARTZEKO PROGRAMA

Programa honen helburua negozio bihurtu daitezkeen proiektuak martxan jartzen laguntzea izango da. Proiektu horiek "Ideia garatzeko programatik" datozenak izan daitezke. Programa hau iraila eta abendua bitartean garatuko da,

Oñatin Elkarrekin Ekin 2018, Ekintzailatza Sustatzeko Programari buruzko informazio zehatzagoa jaso nahi baduzu, Oñatiko Udaleko Sozioekonomia sailarekin harremanetan jarri, 943003198 telefono zenbakira deituta edo [enplegu@onati.eus](mailto:enplegu@onati.eus) helbide elektronikora mezu bat bidalita.

**ETXiAN**  
Oñatiko inmobiliaria berria

Donostian etxea prosteko ere, aukera onenaren informazioa eta laguntza

Etxebizitza edo lokal bat saldu nahi al duzu Oñatin?

Tel: 943 71 61 60  
[www.etxian.net](http://www.etxian.net)

Etxian f

carpintería  
**GARIBAI**  
aroztegia

Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • [garibai@garibai-aroztegia.com](mailto:garibai@garibai-aroztegia.com)  
[www.garibai-aroztegia.com](http://www.garibai-aroztegia.com)

# Arazerixan dabilta ehun gaztetik gora

**Herriko ondarea 12-16 urteko gazteei modu dibertigarrian transmititzeko sortutako ginkana da Arazerixan, eta bi urtetik behin egiten da**

Oñatiko DBHko ikasleentzat propio diseinatutako lehiaketa da **Arazerixan!** Udalak 2016an jarri zuen martxan, herriko ondarea 12-16 urtekoei modu dibertigarrian transmititu asmoz. Askok gogoratuko dute, beharbada, herria hankaz gora jarri zutelako gazteek: kaleko inkestak, argazkiak, erreportajeak, sketchak...

Eta aurten bigarren edizioa jarri da martxan. Otsailaren 19an hasi zen, eta lau aste iraungo du. Ehundik gora gaztek eman dute izena, eta astero proba bana gainditu beharko dute, taldeka. Astelehenetan azaltzen zaie [www.arazerixan.eus](http://www.arazerixan.eus) webgunean zein den egin beharreko proba, eta aste osoa dute erronka gainditzeko, Josu Zubia (aurtengo konplizea) eta Gaztelekuko teknikarien laguntzarekin.

## PROBA DIBERTIGARRIAK

Aurten, besteak beste, Oñatiko kontuak, bitxikeriak, txokoak, historia eta gastronomia ezagutuko dituzte. Baina horretarako ez dira ikasten aritu beharko. Hori debekatuta dago! Arazerixan ondo ibiltzeko, partehartzaileek lotsa barik jardun behar dute, ondo pasa behar dute derrigor. Eta horretarako daude pentsatuta probak ere, dibertitzeko.

## SARI KOLEKTIBOA

Saria sekretupean gordeko dute azken egunerarte, baina proba guztiak gainditzen dituzten talde guztiek jasoko dute, eta sari potolo-potoloa izango da. Gainera, lehiaketan zehar puntu gehien lortzen duen taldeak sari berezia jasoko du.

## AMAIERA FESTA

Duela bi urte festa handia antolatu zen Arazerixan ginkanari amaiera emateko: merienda, zozketak, photo call-a, mozzorroak, DJ festa... ([www.arazerixan.eus](http://www.arazerixan.eus) webgunean dago ikusgai orduko bideoa).

Aurten ere antzeko festa antolatuko da ginkana borobiltzeko. Martxoaren 23an izango da amaiera ekitaldia Gaztelekuan, eta bertan banatuko dira sari potoloak eta berezia. Jaian parte hartzeko proba guztiak egin behar dira. Animo!



**Aurten Oñatiko iragana eta oraina lotuko dituzte proba guztietan; zergatik pasa ziren ultzezinak Kale Barriatik erreka bestaldera; nor zen Maria Irizar; garai bateko komertzioak; zenbat jende bizi zen Kale Zaharrean eta herriko plazan ertaroan... Oñatiko bizkotxoaren berri ere jaso dute, eta bizkotxo bana ere egin dute!.**

**Ginkanaren jarraitzeko: [www.arazerixan.eus](http://www.arazerixan.eus)**



**ARRIZABALAGA**  
Aroztegia

**PAKITA**  
Altzariak

Bereza Ind. 10      Sta. Marina, 6  
Tel. 943 78 14 64      Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIERA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

**IRAZOLA**  
Okindegia

Ostiral, asteburu  
eta jai egunetan  
hasierako agia,  
eguerazko labean zaitza



Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754

# Zer da oñatiarra izatea ?



» Oñatiko ondarearen transmisioa bermatzeko **Hurretik** proiektuaren baitan tertuliak egingo dira herritarrekin, oñatiar izatearen inguruan lagunartean hitz egin eta hausnartzeko

Informazioaren munduan bizi gara egun. Gailu elektronikoak gure parte bilakatu dira eta munduko beste puntako informazioa hel gaitzke klik bat eginez. Honek dakar, askotan gehiago dakigula kanpoko gauzez geure herrikoiez baino. Eta honi buelta eman nahian sortu da HURRETik proiektua. Udalak gidatzen du proiektua, herriko ikastetxeekin eta Euskaltzaleen Topagunearekin elkarlanean. Oñatiko ondarea belaunaldi berriei transmititzea da helburua, eta horretarako material didaktikoa sortzen ari da, ikastetxeetan erabiltzeko.

Baina hori proiektu honen ardatzetako bat da. Bestea, herritarren parte hartzea da. Azken batean oñatiarrok esan beharko dugu zer jakin behar duten gazteek Oñatiri buruz. Eta horretarako tertulia saio irekiak antolatu dira, eta lerro hauen bitartez gonbitea luzatzen diegu herritar guztiei, saio horietako batean parte hartzera. Animatu!

## TERTULIEN EGUTEGIA

- **MARTXOAK 15**, OSTEGUNA  
Gaubela Antixena gaztetxean. (20:00-22:00)
- **MARTXOAK 17**, LARUNBATA:  
Gosari-tertulia Gaztelekuko kuboan. (10:00-12:00)
- **MARTXOAK 17**, LARUNBATA:  
Bazkalosteko kafea Makalena Elkartean. (15:30-17:30)



## DENBORALDI BERRIA!

Zatoz eta probatu itzazu arropa berriak

## UDABERRI-UDA

Ramon Irizar, 2 • Tel. 943 08 81 84 • [www.candeluka.com](http://www.candeluka.com) • Candeluka

# Dirulaguntza

UDALAREN DEIALDIAK



## GARAPENAREN ALDEKO NAZIOARTEKO LANKIDETZA PROIEKTUETARAKO

Garapenaren aldeko lankidetzak proiektuei laguntzera 130.000 euro bideratuko ditu aurten udalak, hiru ataletan:

1. Garapen bidean dauden herrialdeetan lankidetzak proiektuak garatzeko 110.000€. Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik 30 egun naturaleko epea egongo da eskariak aurkezteko.
2. Garapenerako sentsibilizazioa edota hezkuntza jarduerak sustatzeko 3.000€. Ekainaren 30a baino lehen egin behar dira eskaerak.
3. Larrialdiko edota laguntza humanitarioko egitasmoak finantziatzeko 12.000€. Azaroaren 30era arte aurkeztu ahal izango dira eskaerak.

## KIROL ELKARTEENTZAKO DIRULAGUNTZAK

Udaleko Kirol sailak 13.000 euro banatuko ditu aurten herriko kirol taldeen artean, bi ataletan banatuta:

1. Kirol elkarteek kirola sustatzeko antolatzen dituzten ekintzetarako 3.000€.
  2. Kirol arloan ohiz kanpoko jarduerak antolatzeko 10.000€
- Baterako nahiz besterako, hilabeteko epea egongo da eskaerak aurkezteko udal bulegoetan, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik aurrera.

## KULTUR PROIEKTUAK ETA SORMEN LANA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK

Udaleko Kultura sailak 70.000 euro banatuko ditu aurten kultur elkarteetan jarduna eta sormen lanak sustatzeko, bi ataletan banatuta:

1. Kultur proiektuak eta programak gauzatzeko 58.000€ banatuko dira.
2. Oñatiko udalerriko irabazi-asmorik gabeko taldeek garatuko dituzten kultur sormen lanak sustatzeko 12.000€ banatuko ditu udalak.

Baterako nahiz besterako, hilabeteko epea egongo da eskaerak aurkezteko udal bulegoetan, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik aurrera.

## SARRERA URRIAK ETA FAMILIA KARGAK DITUZTEN EMAKUMEENTZAKO LAGUNTZAK

Arrazoi ezberdinengatik (banaketa, dibortzioa, alarguntza....) ohiko bizikidetzak unitatea hautsi duten eta familia kargei aurre egiteko errenta eta diru-sarrera urriak dituzten emakumeek laguntzeko 10.000 euroko diru atala dauka udalak. Abenduaren 15a arteko epea dago eskaerak egiteko udal bulegoetan.

## ETXEBIZITZETAN SU DETEKTAGAILUAK JARTZEKO LAGUNTZAK

Etxebizitza partikularretan su-detehtagailuak jartzeko eskaerak egiteko 2018ko deialdia ireki du udalak. Laguntza hau eskuratu ahal izango dute:

- Aurten 80 urte betetzen duten pertsonak eta etxean bakarrik edo 80 urtetik gorako beste norbaitekin bizi direnak.
- Aurreko baldintza bete ez arren, mendekotasun, bakardade edota arrisku egoeran bizi direnak.

Eskaerak udaleko Gizarte Zerbitzuetan (Bidebarrieta 12) aurkeztu behar dira, urriaren 31ra bitartean.

## ADIZKIOEN TRATAMENDURAKO LAGUNTZAK

Adikzio mota desberdinen tratamendurako (ludopatiak, drogak, dependentzia emozionalak -mugikorrak...-) diru laguntzen oinarriak onartu eta deialdia egitea erabaki du udalak.

Dirulaguntza jaso ahal izateko baldintzak:

- Tratamendua hasiko duen pertsonak Oñatin bi urtez errolatuta egotea, gutxienez, edota herrian gutxienez hiru urtez errolatuta dauden senideekin bizitzea.
- Pertsonak lau hilabete eraman beharko du, gutxienez, errehabilitazio programan.. Laguntzak atzeraeraginez aplikatuko dira

Diruz lagundutako gastuak ondorengoak izango dira:

- Errehabilitazio zentrorako joateko eragindako garraio gastuak.
- Gehienez bi pertsonak (afektatuak eta laguntzaileak) hilean egindako bidaia kopurua hartuko da kontuan.

Udaleko Gizarte Zerbitzuetan egin behar dira eskaerak.

**GARBIKETA  
ADMINISTRAZIOA  
ETA KONPONKETAK**

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarteetan administrazioa
- Konponketa orokorrak

**GAK**  
Garbitasunaren usaina

**653 70 45 47**  
Oñati

**PINTURAS  
URBIA  
MARGOAK**

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

## DEIALDIAK

### Harreralarari lanposturako lan poltsa sortzeko deialdia egin du udalak

Udal zerbitzu ezberdinetan harreralarari lanpostuetan sor litezkeen behin-behineko beharrei aurre egiteko lan poltsa bat osatzeko deialdia egin du udalak.

Hautapen proban parte hartu ahal izateko baldintzak hauek dira; DBHko graduatua edo baliokidea den tituluaren jabe izatea, eta euskaraari dagokionez, HAEEn 3. hizkuntza eskakizun maila edo parekoa. Lan eskarmentua eta prestakuntza ikastaroak ere baloratuko dira.

Interesatuak martxoaren 6ra arteko epea dute eskaera-orriak aurkezteko. Udalaren webgunean ([www.onati.eus](http://www.onati.eus)) eskura daiteke baldintza zerrenda osoa.

### Udaleku Irekietarako eta Arte Udalekuetarako begiraleak kontratatzea

Uztailaren 2tik 17ra egingo diren Udaleku Irekietan eta Arte Udalekuetan begirale gisa lan egin nahi duten gazteek martxoaren 5etik 16ra eman behar dute izena. Derrigorrezkoa izango da maiatzaren 12an eta 23an egingo diren formazio saioetan parte hartzea.

Bestalde, udalekuetan parte hartzeko izen ematea epea martxoaren 12tik 23ra egongo da zabalik. Udaleku irekietan 2006-2014 artean jaiotakoek parte hartu ahal izango dute, eta Arte udalekuetan LH3tik DBH4ra arteko gazteek.

## OÑATIKO UDAL GOBERNUAREN OHARRA

### Azken 10 urteetako exekuzio maila altuena (%91) izan du 2017ko udal aurrekontuak

#### » INBERTSIOEN EXEKUZIO MAILA %74,4koa IZAN DA

2017ko aurrekontuaren likidazioa amaitu berritan, honoko balorazioa egiten du Oñatiko Udal Gobernu Taldeak: 2017ko aurrekontuaren exekuzio maila azken 10 urteetako altuena izan da. Exekuzio maila orokorra %91koa izan da eta inbertsioena % 74,4koa.

Azken 10 urteetan Udaleko zerbitzu eskeintza asko zabaldu da eta adibide zerrenda luzea aipatu liteke: Gizarte arloko diru laguntzen indartzea, Landa eremuko zerbitzu eta diru laguntzak, Udaleko kale garbiketa eta mantenu zerbitzu publikoak, berdintasun eta parte hartze zerbitzu berriak, kultur, kirol eta hezkuntza arloan zerbitzu nahiz proiektu berriak... Herritargoari zuzenduriko eskaintza zabaltze horrek gastu arruntaren igoera bat suposatu du pentsatzekoa den moduan. Hori horrela izanik ere, azpimarratzekoa da bilakaera hori oso modu orekatuan egin dela. Udaleko finantzen balantza modu berezian zaindu da.

Horren adierazgarri dira 2017ko aurrekontuaren itxiera datuak. Sarrera arrunt eta gastu arruntaren arteko diferentzia positiboa, 2 milio eurokoa izan da. (aurrekontu orokorra 18,38 milioi eurokoa). Datu azpimarragarria da, gaur egun oraindik maila honetako aurrezki arrunt positiboa mantentzea; izan ere azken urte hauetan eraikuntza sektoreko sarrera handiak iada desagertuak dira.

Esan bezala, finantza oreka hori mantentzeko helburuari dagokionean, sarrera arruntaren kapituluak garrantzi berezia du. Puntu honetan, 10 urteko epealdian arrazoi nagusiak bilatzerakoan, aipagarriak lirateke Foru fondoa, etxebizitza zergadunen hazkunde bat (urbanizazio berriak), eta fiskalitate neurri berrien aplikazioa: Jarduera ekonomikoen zergaren formulazio berri bat, katastroaren errebisioa, etxebizitza hutsei aplikaturiko zergapetzea....

Bestalde, Udalaren zorpetze bizia (900 mila euro) %5ekoa da, bere mailako udalen batzbestekoaren erdia (%12), eta Gipuzkoako udal multzo osoaren batzbestekoa %28koa. Datu guzti hauek adierazten dute Oñatiko Udalaren egoera ekonomikoa zein den.

Hau horrela izanik, 2018ko Udal Aurrekontuaren onarpenean adierazi bezala, egoera ezin hobea da Udalak aurreikusita duen urteanitzeko inbertsio plangintza aktibatzeko.

Urte askotan zuekin

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • [www.mapfre.es](http://www.mapfre.es)



# TROGLOBIOAK

Kobazuloetako animalia ezezagunak deskubritzeko bisita berezia egingo da Arrikrutzen martxoaren 17an



Argazkiak: Arrikrutz

## Kakao zaporea eta Magdalenako ermita

EZKUTUKO ALT XORRAK programaren barruan bi bisita gidatu antolatu ditu Oñatiko turismo bulegoak martxoaren 10erako. *Kakao zaporea Ignaziotar lurraldean* (12:00) eta *Magdalenako ermita* (17:00). Erreserbak: 943783453 / [turismo@onati.eus](mailto:turismo@onati.eus)

## Aste Santua

## Arrikrutzen eta

## Oñatiko herrigunean

Martxoaren 29tik apirilaren 10era arte (astelehena barne) Arrikrutzeko koba bisitatzeko aukera egongo da. Aurrez erreserba egitea komeni da: 943082000 edo [arrikrutz@onati.eus](mailto:arrikrutz@onati.eus).

Bestalde, martxoaren 29tik apirilaren 2ra, turismo bulegoak bi bisita gidatu eskainiko ditu egunero (13:00 eta 17:00) herrigunean zehar *Oñatiko Altxorrak* erakusteko. Erreserbak, 943783453 edo [turismo@onati.eus](mailto:turismo@onati.eus).

Bisita hauekin batera, San Migel errota martxan ikusteko aukera egongo da, Gebaratarrentzako aleak nola ehotzen ziren ikusteko.

Oñatiko aurpegi gozoena ezagutzeko aukera ere egongo da Txokolateixan eguneroko bisita gidatuekin (12:00). Erreserbak: 605763595

## Kobazuloen eguna ospatuko da martxoaren 18an

LURPEA elkarteak osatzen duten zortzi kobazuloek (*Ekainberri, Isturitz-Oxozelhaya, Mendukilo, Pozalagua, Sara, Zugarramurdi, Urdazubi eta Arrikrutz*) VIII. Koben Eguna ospatuko dute hilaren 18an. Eta hori ospatzeko ekitaldi eta bisita berezi ugari antolatu dituzte, 'seigarren kontinentea' bezala ezagutzen den lurpeko muduaren ezaugarri eta berezitasunak herritarrei erakusteko.

### TROGLOBIOAK EZAGUTZEKO BISITA BEREZIA

Koben Egunaren bezperan, martxoaren 17an, troglobioak ezagutzeko tailer eta bisita berezia egingo da Arrikrutzeko koban, goizeko 10:00etan hasita.

Kobazuloko animalia ezezagunak baina, era berean, ezinbestekoak diren izaki txikiak dira troglobioak. Nolakoak dira? Nola bizi daitezke kobazuloak eskaintzen dituen baldintza zorrotzetan? Zer jaten dute?... Galdera hauen erantzunak ezagutzeko aukera izango dugu Arrikrutzen, kobaren iluntasunean barneratuz eta material bereziekin troglobioak aztertuz.

Bisita berezi honetarako eta Koben Eguneko (martxoak 18) bisitetarako erreserba egitea komeni da: 943082000 / [arrikrutz@onati.eus](mailto:arrikrutz@onati.eus).

## Arrikrutzeko bisita erdi prezioan



Koben Eguna ospatzeko, Lurpea elkarteak ([www.lurpea.eus](http://www.lurpea.eus)) biltzen dituen 8 kobazuloak erdi prezioan bisitatu ahal izango dira, tartean Arrikrutz.

Gainera, egun horretan Lurpeako kobaren bat bisitatzeko dute guztien artean Oñatiko Arregi nekazalturismo etxean gau bateko egonaldia eta 8 kobazuloak ikusteko bono bat zozkatuko da.

**EGUR-LAN**  
ARROZTEGIA  
LIMABAR S.A.L.  
BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)  
TEL./ FAXA: 943 78 14 59 / [limabarsal@gmail.com](mailto:limabarsal@gmail.com)  
[www.egur-lan.es](http://www.egur-lan.es)

**smk**  
san miguel kooperatiba  
943 781 217  
kale barria 8 - 20560 oñati  
[www.sanmiguel.coop](http://www.sanmiguel.coop)

## Lagun Leku elkarteak zuhaitz bat landatuko du eraildako emakumeak oroitzeko

Lagun Leku erretiratuen elkarteak martxoaren 8rako iragarrita dagoen 'Emakumeok planto!' grebarekin bat egiteko deialdia luzatu du. Egurdiko 12:00etan elkarretaratzea egingo dute Olakukoa urmaelean, eta arratsaldeko 19:00etan udaletxe parean egingo den elkarretaratzean ere parte hartuko dute. Gainera, egun horretan zuhaitz bat landatuko dute, eraildako emakume guztien oroimenez. Ildo horretan erakundeei eskatzen diete beren esku dagoen guztia egin dezaten halakorik gehiago gerta ez dadin, eta dei egiten diete gizonezkoei berdintasun eta justiziaren alde egitera.

## 'A tiro de piedra de la cárcel', Palestinako gazteei buruzko dokumentala

Elkar Hezi ikastetxeko batxilergoko ikasleek antolatuta, Raquel Castells dokumentalistaren (Beirut-etik dator) 'A tiro de piedra de la cárcel' dokumentala ikusteko aukera izango dugu martxoaren 7an, kultur etxean, 10:30etan. Palestinako gazteen hezkuntza eskubide murrizak eta familietako amek duten papera jorratzen du bertan. Horrez gain, Castellsek berak dokumentalista emakume bezala izan duen esperientzia ezagutzeko aukera egongo da.



## Josep Pamies Oñatin Okitañoren eskutik



San Martingo baratza parkeko *Okitaño* elkarteak Josep Pamies-en hitzaldia antolatu du. **Martxoaren 3an** izango da, eta bi aukera egongo dira: goizeko 11:30etan eta arratsaldeko 19:00etan. Biak ala biak Santa Ana aretoan.

Josep Pamies DOLÇA REVOLUCIO mugimenduen sortzailea, sendabellarretan aditua, eta elikadura burujabetzaren bultzatzailea da. Katalunian eta Espainian zehar hitzaldi asko ematen ditu gai hauen inguruan, baina gure bailaran lehen aldiz entzuteko aukera izango da. Sarrera 3€

## Arnaldo Otegiarekin solasaldia



Oñatiko EH Bilduk antolatuta, Arnaldo Otegiarekin hitzaldi-solasaldia egongo da martxoaren 7an, Santa Ana aretoan, 19:00etan.

### PENTSIOAK ETA EREDU ENERGETIKOA

Beste bi hitzaldi ere antolatu ditu EH Bilduk hile honetarako. Martxoaren 14an (Santa Ana, 19:00) **Helena Francok** hitz egingo du pentsioei buruz, eta hilaren 27an (kultur etxean, 19:00) **Mikel Otero** eta **Dani Maeztuk** emango dute hitzaldia, 'Eredu energetikoa: nora goaz?' izenburpean.

## Amodiozko gutunen lehiaketa irabazi du Itziar Ugartek



Bergarako Jardun elkarteak antolatzen duen **Amodiozko** Gutunen lehiaketaren 26. ekitaldia irabazi du Itziar Ugarte kazetari oñatiarrak. Duela gutxi hil zaion amari idatzitako gutuna da Itziarren, eta aldi berean haren belaunaldiari eskainitako omenaldi moduko bat ere bada. Danera 79 eskutitz aurkeztu dira sarietara. Jardunen webgunean dago gutuna irakurtzeko aukera.



## Antxiñako Fotografixia eguneratuta



Otsaileko aldizkariko Antxiñako Fotografixian orain dala 60 urte Araotzen Santa Ageda egunez egin zuten kanteskeko argazkia argitaratu genuen, eta bertako gazteek argazki hura eguneratu egin nahi izan dute, ondoko irudian ikusten den moduan. Hauek agertzen dira bertan: Goixenian, Josu Barrena (Otalora Txikikua), Gaizka Maiztegi (Errastikua) eta Aritz Agirre (Kale umia). Erdiko ilaran, Iñigo Gorostidi (Kale umia), Mattin Maiztegi (Errastikua), June Beitia (Maiña Beitti Goikua), Ane Erostarbe (Etxatxokua) eta Markel Bellido (Kale umia). Beheko ilaran, Oihane Lazkanoiturburu, panderojolia (Agerrekua) eta Maddi Guridi, soñujolia (Txomenekua). Argazkixan faltan, Manex Barrena (Zubittakua) lesionauta, sinismenaren misterioa. Maddi Guridi eta Ane Erostarbe, antxiñako fotografixian agerketan dian Jabier Erostarbe (Etxatxokua) eta Jabier Guridi soñujolian (Txomenekua) billobak dira.

## Kontzejupetik



**ARGITARATZAILEA:** Oñatiko Udala

**ZUZENDARIA:** Iñigo Arregi

**PUBLIZITATEA:** Aratz Losada

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**

Aratz Losada

**KOLABORATZAILEAK:** Jerardo Elortza

eta Udal Euskaltegia

**INPRIMATEGIA:** Gertu

**Tirada:** 5.500 ale

**Lege gordailua:** SS-357/91

**Posta-e:** kontzejupetik@onati.eus

**Publizitatea:** publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa

20560 Oñati (Gipuzkoa)

Tel.: 943 78 20 72

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

## GUTUNAK

Azaleko ilustrazioa: Greba Feminista webgunea

Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorleraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 OÑATI | Tel.:943 78 20 72 | Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

## 'Handiak'-k Goia jo du

Agustin Goenaga Urzelai

Otsailak 3 zuen batean Euskal zinemak goia jo zuen 'Handia' filmari esker. Altzoko handiak hamar "buruhandi" besapean hartu eta hanka egin zuen Euskal Herrira bere zango luzeaz baliaturik".

Tankera horretan taxuturiko kronika azalduko ote da hemendik urte batzuetara euskal hemerrotekaren poltsa handian? Baiezkoan nago. Datozen egunetan lerro saldo luze bezain handiak idatziko dira eta uhin zaparrada indartsuak entzungo. Telebistan *glamoura* usaintzera behartuko gaituzte eta alfonbra gorriko miseriak eta orbanak ezkututzen saiatuko. Nik "marlonbrando"ren jarrera estiloa dut gustukoen, hau da, saria eman didazue eta onartzen dut, baina ez noa zuen joko miserabiletan erortzera, beraz ez nauzue pasarelan ikusiko. Dena den, eta salbuespenak salbuespen, talde irabazle horren jarrera nire egiten dut, eta ulertzen. Euskarazko filma delako, eta euskararen presentzia duina egin dutelako oholtza estu gorri mada-rikatuan. Eta talde lanarengatik. Talde lanak aupatu baitu gorenera Handia filma eta goia jo du, ez behin, hamarretan baizik. Hori miresgarria da. Txalo.

Herri honen historia txikia handitza etorri da Handia. Herri honek ez du mundua aldatuko duen tresna magikorik asmatu, utikan! Zinea kulturaren zatitxo bat besterik ez da eta herri honek ongi baitaki zer den txikitik ekinez handira hordagoa jotzea.

## Zorion handia

Mikel Biain Berraondo,  
Oñatiko Alkatea

Larunbat gau hartako aho zapore lgozoak hor dirau oraindik, eta zaila egingo zaigu ahazten bizi izandako hori. Konparaketak egitea mingarria dela esan ohi da, eta zerbaitegatik izango da. Bizitzan bizi izandako gauza ederren atzera begirada bat egin eta ez pentsa, esatekoak ez diren horietatik harago...ba, gauza gutxi ederragorik!

Gauza gutxi ederragorik, euskal kultura eta nortasunaren ikuspegitik. Izan ere, euskal idazle famatu horren hitzetan, agian, moroak izango gara lainopean, herririk ez eta harri txin-txarrak besterik ez gure poltsiko zula-tuetan... Ez dela lan samurra euskaldun izatea.

Eta eskerrak, lainope horretan, tarteka sartzen diren argi errainuak eta agertzen diren argi distirak.

Euskal jendarte zabal batek barrubarrutik bizi izan du eta oraindik biziko du Handia-k sortu duen distira. Ez da gutxiagorako. Historikoa izan da, eta epikoa ere bai. Harro sentiarazten gaitu.

Izan al genezake enbaxadore hoberik kalitatezko, euskarazko produkzio bat munduan zehar ikusgai izatea baino?

Argi distira ez ezik, oin-harri handi eder bat -patata izan zitekeen arren! Kar, kar- gure herri zahar honen harresia gogortzeko lanetan, zergatik ez.

Bueno, eta esan behar dut, agian, honetan guztionetan niretzat ederrena izan dela norbere kuadrillako laguna telebistako pantailan ikustea, pajarita jantzita, Madrildik, euskaraz, etxeokak

eta lagunak agurtzen.

Merezitako omenaldiak jaso ditu Handia-ren ekoizpenean parte hartu duen lantaldeak. Oñatiko herriak ere dagokion neurrian bere egiten du eta sentitzen du Handia-k jasotako erre-konozimendu hori. Pasa den Otsailaren 19an Aitorren ibilbidea eta bizi-penak bertatik bertara entzuteko aukera izan zuten oñatiarrek Santa Anan izandako ekitaldian. Eta, nola ez, Handia berriz ere itzuli zen gure herriko zinema aretora, arrakasta handiz gainera.

Zorionak, bihotzez, Aitor, Amaia, Martin eta etxeok guztie! Seguru guztiek duzuela zuen zatitxoa Goya sari horietan.

## Martxoaren 8a: "Baita geu ere"

Marijo Etxegoien Arzuaga,  
Oñatiko EAJ-PNVren udal-taldea

Badator Martxoaren 8a, Emakumeen eskubideak aldarrikatzeko Nazioarteko Eguna. Helburu horrekin, hainbat mugimendu sortu dira nazioarte-mailan azken aldian; baita Euskal Herrian ere. Entzunena "#MeToo" leloa izan da. Estatu Batuetan hasi, eta mundu osoan zabaldu da mezu hori ("Baita geu ere"). Hala, Hollywood-eko oso aktore ezagunak urteetan sufritutako sexu-erasoen berri ematen hasi dira, eta baita salatzen ere: besteak beste, Oprah Winfrey, Ashley Judd, Angelina Jolie, Gwyneth Paltrow, Emma Watson, Sharon Stone... Oraintsu arte, tamalez, inguruko isiltasuna izan da erasotzaileen babesgune.

Euskal Herrian, bestalde, "Nik sines-

ten dizut” leloa hedatu zen 2016ko San Ferminetako gertaera onartezinen ondoren. Mezu horrek balio izan du eraso zuten emakumeak aitortza jaso zezan; baita emakumeok jaietan, oro har, sufritzen dugun indarkeria ikustarazteko ere. Izan ere, Bilbo, Azpeitia edota Oñatiko jaietan ere gertatzen da bortxakeria-egoerarik. Eta jaietan ere, ingurukoen isiltasuna da erasotzaileen babesgune. Beti.

Lan-esparruan, sexu-jazarpena eta jazarpen sexista da emakumeen eta gizonen arteko berdintasun ezaren ondorio larrienetakoa. Baina ez da bakarra. Askotan, lankideak isilik egoten dira, lanpostua galtzeko eta zigorra jasotzeko beldurrarekin. Lanean ere isiltasuna da erasotzaileen babesgunea.

Emakumeak halako egoeren eta unen berri ematen hasteko, nahitaezkoa da emakumeen eta gizonen arteko berdintasun ezaren kontzientzia sortzea. Baina ez hori bakarrik! Emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna gauzatuko bada, gizarte osoak sinistu beharko du, horretan inplikatu, eta parte hartu. Beraz, gizartea aurrera egingen ari dela adierazten duen herritarrek behar dira erakundeetan, eskoletan, osasungintzan, kirolean, enpresetan, merkataritzan....

Horixe da Emakumeen Nazioarteko Egunak lortu nahi duen helburuetako bat: gizarte-kontzientzia piztea. Eta hori, azken finean, neure eta zeure esku dago. Geure esku dago! Ez ala?

## Oñatiko Kultura Saria, zergatik ez?

*Amaia Erostarbe Letamendi,  
Oñatiko EAJ-PNVren udal-taldea.*

Hainbat sari banatu dira Gabonetan Oñatiko udalean urtero lege. Batetik, Urteko Kirolari Onenen Saria; bestetik, Erakusleho Onenen Saria. Orain 10 bat urte jarri ziren abian sariok EAJ-PNVren ekimenez, udal-gobernuan zegoenean. Xedea izan zen kirolarien eta merkatarien lan ona, ahalegina eta ibilbidea aitortzea, balioan jartzea eta bistaratzea. Aitorpen-sariak izan dira, beraz, hasiera-hasieratik.

Hala ere, Oñatin ez da kulturaren esparruan diharduen edo jardun duen inor saritzen. Ez dago Kultura Saririk emateko modurik! Eta, horren aurrean,

## OHARRAK, DEIALDIAK ETA AZKEN ORDUKOAK

### EUSKALTEGIKO MATRIKULA-ZOZKETAREN IRABAZLEA.

Euskaltegiako ikasleen artean ikasturteko matrikularen kostuari dagokion diru-saria zozketatu ohi du urtero udalak. Aurten Nieves Barrena Villarrentzat izan da. Argazkian dago bera saria jasotzen (22€) Euskaltegiako zuzendari Roberto Altunaren eskutik.



### ARRASATEKO TXANTXIKUARREN BAZKARIA

Aurten ere bazkaria egingo dute Arrasaten bizi diren oñatiarrek. Martxoaren 17an izango da, Erreka tabean. Lehenengo, Sampy tabernan elkartuko dira 13:30etan, luntxa jan eta argazki ofiziala ateratzeko, eta 14:30etan izango da bazkaria. Bazkalondoa musika egongo da Javi Sound DJaren eskutik. Martxoaren 13a baino lehen eman behar da izena, Erreka jatetxean bertan, 40 euro ordainduta.

### ZUZENKETA

Otsaileko zenbakiko 33. orrian, 'Oñati kalerik kale' atalean, Etxaluze etxearen argazkia argitaratu genuen, egilea aipatu gabe, oharkabea. Orduko hutsegitea zuzendu nahi dugu, eta garbi adierazi argazkia JOSE LUIS PLAZAOLArena dela.

EAJ-PNVren udal-taldeak Kultura Saria sortzea proposatu zuen/du, bai 2017ko, bai 2018ko aurrekontuetan aurkeztutako ekimenetan. EH Bilduren udal-gobernuak, ordea, ezezko borobila eman zion/dio proposamenari. Haien erantzuna, haxe: “Ez dugu egoki ikusten; eragileei aitortza egin baino, eragileen arteko *konpetentzia ez sanoa eragin dezake*”. Hara hor, bada! EH Bilduren erantzun hori aitzakia izan da EAJ-PNVren ekimena, besterik gabe, atzera botatzeko? Hala, EAJ-PNVren udal-taldeakideoi galdera hau etorri zaiagu burura: herriko kirolari onenen artean eta erakuslehoak ondoen apaintzen dituzten merkatarien artean ez al da “konpetentzia ez sanoa” sortzen?

Oñatin badago talentua. Baita, kulturari, saritzeko moduko ekarpena egin dion oñatiarrik ere. Euskal Herrikanpo eta European sariak irabazitakorik ere bai. Esaterako, azken egunetan sona handia izan duen *Handia* filmaren zuzendarietatik bat, Aitor Arregi. Ez dago, oster, horrelako oñatiarrak saritzeko biderik. Hutsune handia dago EAJ-PNVren iritzian, eta tristura sortzen digu hainbat herritan ezarrita dauden sariak ematerik ez izatea. Horregatik, zera eskatzen diogu beste behin ere EH Bilduren udal-gobernuari: kulturaren esparruko sortzaileak aintzat hartzea eta Kultura Saria sortzea lan ona eta ibilbidea aitortzeko eta eskertzeko, balioan jartzeko eta bistaratzeko.

Gai izango ahal gara 2019. urtean Kultura Saria banatzeko!

## Euskal udalekuak; uda bete abentura, zure eskural!

*Laida Bengoa eta Xabier Etxebarria*

Negua amaitzen ari da, udaberrian sartzen ari gara eta konturatu orduko uda bete betean gaude. Inguruetakoko baso eta mendietako zuhaitzak begiratzeko baino ez dago. Eta gu, urtaroei aurreratzen ari gara, Euskal Herriko hainbat txokotan udarako zerbait prestatzen ari gara, zuhaitzak biziberritzen, udarako bizi bizi egon daitezen; euskaraz, auzolanaz, jolasekin eta harremanetaz. Urte honetan zerbait berezia dakarkigu, urte asko honetan ibili arren urtero baita berezia, errepikaezina.

Udan zehar aste bete edo bi astez, gu, hezitzaileak, eta gurekin egongo diren haurrak GOÑI, BERNEDO eta OZAETA (Abaigarren orde) elkartuko gara. Urtero bezala, hamar edo hamabost egun euskaraz, naturan, laguntasunean elkarbizitzeko, urtero bezala, baina urtero desberdin, urtero errepikaezina.

Aurten izen emateko aukera Martxoaren 5etik aurrera egongo da eta edozein zalantza argitzeko [www.udalekuak.eus](http://www.udalekuak.eus) webgunera jo ahal duzue.

Udalekutan ikusiko gara!

## >> HAUR ETA GAZTEAK

## GURE EKINTZEN BERRI EMANGO DUEN ATALA...

### >> UDALEKU IREKIAK <<

Euskaraz eta gozamenetik Oñatiko txoko ezberdinak ezagutzeko aukera izango dugu udalekuetan. Beti bezala ekintza ezberdinak egingo ditugu haurren nahi eta gogoetara egokituz, hala nola, uraren eguna, eskulanak, jolasak, ibilaldiak, kanpaldia etab.

Oñatiko Gaztelekua izango da gure topalekua eta 4 urtetik 12 urteko haurrak parte hartu ahal izango dute. Iaz bezala, ordainketa kontu ezberdinetan eta internet bidez egin ahal izango da. Hona hemen aurtengo udalekuetako beharrezkoa informazio guztia:

**NOIZ:** Uztailaren 2tik 27ra. **ORDUTEGIA:** 10.00-13.00 **ADINA:** 2006-2014an jaiotakoak (biak barne). **TOKIA:** Gaztelekuan **MATRIKULA:** 70€, bigarrena 60€, hirugarrena 50€, laugarrenetik aurrera doan. **HAURREN IZENA EMATEKO EPEA:** Martxoaren 12tik martxoaren 23ra (biak barne) **ZAINTZA ZERBITZUA:** 8.15-10.00 bitartean (50€)

**IZENA EMATEKO MODUA:** Behin ordainketa eginda, ordainketaren ziurtagiria eta izen emate orria datu guztiak bete-ta, Udaletxera (9.00-14.00) edota Txaloka ludotekara (16.45-19.45) eraman beharko da.

### UDALEKU IREKIEN BEGIRALEEN KONTRATAZIOA

**IZENA EMATEKO EPEA:** Martxoaren 5etik 16ra. **HEZITZAILEEN FORMAZIO SAIOAK:** Maiatzaren 12 eta 23an. Derrigorra izango da formazio saioetara etortzea. **BALDINTZAK ETA INFORMAZIO GEHIAGO:** Ludotekan, Gaztelekuan, Oñatiko Udalean edo [www.onati.eus](http://www.onati.eus)

### >> ARTE UDALEKUAK <<

Aurten, zazpigarren aldiz, Arte udalekuak antolatuko ditu Haur eta Gazteria Sailak. Arte Udalekuetan gaztetxoek marrazkigintzan, eskulturan, margogintzan eta abar aritzeko aukera izango dute.

**NOIZ:** Uztailaren 2tik 27ra. **ORDUTEGIA:** 10.00-13.00, **ADINA:** LH3tik hasita DBH4 arte, biak barne. **TOKIA:** Bide-barrietako eskularen gelan. **MATRIKULA:** Lehenengo haurra 70€, bigarrena 60€, hirugarrena 50€, laugarrenetik aurrera doan. **KOPURUA:** Plaza mugatuak, gehienez 15 gazte. **IZENA EMATEKO EPEA:** Maiatzaren 8tik 26ra, biak barne.

**IZENA EMATEKO MODUA:** Gaztelekuan eman beharko da izena. Onartutakoei abisatuko zaie dirua non eta noiz sartu behar duten jakinarazteko.

### ARTE UDALEKUEN BEGIRALEEN KONTRATAZIOA

**IZENA EMATEKO EPEA:** Martxoaren 5etik 16ra. **HEZITZAILEEN FORMAZIO SAIOAK:** Maiatzaren 12 eta 23an. Derrigorra izango da formazio saioetara etortzea. **BALDINTZAK ETA INFORMAZIO GEHIAGO:** Gaztelekuan, Oñatiko Udalean edo [www.onati.eus](http://www.onati.eus)

### >> GAZTE ELKARTE ETA SORMEN DIRULAGUNTZAK <<

Oñatiko Udaleko Haur eta Gazteria sailak, aurten ere, gazte elkarteak eta sormena bultzatzea helburu duten diru-laguntzak jarriko ditu martxan martxoan. Diru-laguntzak jarraian zerrendatzen diren ataletan oinarrituko dira: Urteko programaketa - Elkarten sustapena, Kultur sormena eta hedapena (diskak, audio-bisualak, ...), ez-ohiko jarduerak. Martxoaren erdialdetik aurrera egongo da eskatzea. Informazio gehiago Gaztelekuan, Oñatiko Udalean edo [www.onati.eus](http://www.onati.eus).

### >> GAZTE EMANTZIPAZIORAKO DIRULAGUNTZAK <<

Gazteen emantzipazio bidean, eta helduen mundura sartzeko prozesuan laguntzea, eta modu orokorrean, Gazteek Oñatiko herrian alokairuko etxebizitza eskuratzea sustatzea helburu duten diru-laguntzak martxan jarriko ditu, aurten ere, Oñatiko Udaleko Haur eta Gazteria sailak. Martxoaren erdialdetik aurrera egongo da eskatzea. Informazio gehiago Gaztelekuan, Oñatiko Udalean edo [www.onati.eus](http://www.onati.eus).

## MARTXOAN...

**KONTZERTUAK:** [2] Nogen eta Anita Parker. [24] Delorean+Lumi. **IKUSKIZUNAK:** [18] Bertso paper lehiaketako Petresku, Etzi ez etsi. Bertso antzerkia. Nerea Ibarzabal eta Eneko Arrate.

**LUDOTEKA:** [10] Ludoteka Ibiltaria [26] Ludotekako ekintza bereziak **KUBOA:** [13-24] Marrazki lehiaketa. **TOPALEKUA:** [23] Arazerixaneko azken festa.

## HARRIBITXIAK

Idazle asko ditut gogoko eta liburuetan lizabaltzen eta eskaintzen dituzten pentsamendu eta narrazioak maite ditut. Irakurritakoa hausnartzuz ikasi egiten dut eta laguntza bikaina ematen didate konpainia ederra eskainiz.

Literaturan, arlo ezberdinen artean harribitxiak ere ederrak izan litezke eta hara hemen adibideetako bat.

Azken urte hauetan, genero hau landu eta euskeraz argitaratu duen idazle emankorra **Karlos Linazasoro** da. Tolosarra izatez. Lanbidez bibliotekaria, euskal literatura mota guztietan aberastu duena: haur eta gazte literatura, poesia, antzerkia, ipuinak, eleberriak. 'Euskadi' eta 'Xabier Lete' Sarien irabazlea da.

Bere harribitxi edo aforismoak honako liburu bikain hauetan argitaratuta ditu Karlosek: **'Esan gabe doaz', 'Ixiltasunaren adabakiak', 'Alferrik ez balitz** eta **'Beti eder dena'**. Idatzi laburrak, ulertzeko errazak, astuntasunik gabekoak, oso esanguratsuak, beteak, zirikatzaileak, sakonak, kritikoak, ironikoak, umoretsuak, originalak eta surrealistikak agertzen ditu.

Hemen jarraian, liburu horietan gai des-

Bittor  
Madina



berdinei buruzko batzuk dituzu. Badakizu, irakurtzen lortzen da zaletasuna.

● Gero eta askatasun handiago dagoenez, orduan eta gauza gehiago debekatzen digute.

● Jainkoak zazpi egunetan sortu zuen mundua. Orduz geroztik, atsedean hartu baizik ez du egin.

● Emakumezko bat lapidatu behar denean, gizonezko guztiak bekatutik libre egon ohi dira.

● Normalean, esaten dutena baino hobekak gara, eta garena baino maltzurragoak.

● Bizitza tonbola bat da. Laostia! ematen didaten nazkarekin.

● Askotan, jendeak, zer esan ez dakienengan, ez dakien zerbait esaten du.

● Etzazu gaurko eguna bizi zure bizialdiko azkena balitz bezala, akonjonatuta biziko zara-eta.

● Litekeena da beste planeta batzuetan ere bizi *ez-inteligentea* izatea.

● Jainkorik ez da, baina asko agintzen du.

● Bakea emateko garaian, eliztar batek

esan ohi zuen. "Hau tregua ttiki bat besterik ez da."

● Nondik begiratzen zaion, mundua zoragarria da. Begiratzen jarrita, apurka-apurka zoragarri izateari uzten dio.

● Ez dut askorik behar bizitzeko, baina bai zoriontsu izateko.

● Edukiontzi edo *container* bat, mese-dez, haurtzaroko mitoak jaurtitzeko!

● Batzuetan pentsatzen dut hil ondoren ez dagoela ezer, eta ezerez hori dela betiko atsedeenik ederrena.

● Gezurrak hankak motzak ditu, baina bihotz atletikoa.

● Jainkoari errieta edo demanda egiten zion ateoak.

● Askotan, elkarrizketa biren arteko baka-rrizketa da.

● Justiziak ere zikinak dauzka alfonbra azpiak.

● Beti dira besteak hiltzen direnak. Hori-xe da heriotzak daukan gauza atsegin bakarra.

● Ikusita ere, kostatu egiten da sinistea; ikusi gabe, berriz, askoz errezago sinisten da.

● Gizon batek zootik alde egin zuen. Barruti osoko piztiarik arrakatsuenaren zen.

● "Fiat lux" (Izan bedi argia)-ren ondoren Jainkoak esan zuen: "Itzali dezagun eta goazen".

Maskulinitate eredu berriei, Marcos Castrok emandako hitzaldiaren laburpena



## Maskulinitate eredu berriak, genero indarkeriaren prebentziorako bide

Gure gizartean denboran zehar txertatuta dagoen ideia bat aldatu ahal izateko, egoera hori aldatzeko dela jakin/sinistu behar dugu alde aurretik. Hau da maskulinitate ereduarekin egiteko dagoena.

Mugiezina zirudien eredu bakarra erakutsi digute, bi aldaera dituen eta giza-kumeok, bizitzaren etapa ezberdinetan aukeraketa egin behar izan dugu: **Maskulinitate Menperatzaile Tradizionala** (MMT) edo **Maskulinitate Zapaldu Tradizionala** (MZT). Lehenengoak, boterea, indarra, oposizioa eta zapalkuntza baliatzen ditu. Hau da harreman afektibo-sexualetan erakargarri suertatzen zaiguna. Bigarrenak alderantziz, berdintasun eta justizia baloreak sustatzen ditu, bai-

na honetan gizarteratutakoek, harreman afektibo-sexualak garatzeko orduan ez dute arrakasta handirik izaten (pagafantasia-aren sindromea). Bi profil hauek, muturrekoak izanik ere, eredu bakarra osatzen dute, elkar elikatzen dira, alegia, MZT-ak MMT-en indarra eta nagusitasuna ahalbideratzen ditu.

Komunitate zientifikoak frogatu du modelo aldaketa posible dela, badagoela hirugarren eredu bat: **Maskulinitate Eredu Berria** (MEB). Hau genero berdintasunean oinarritzen da, eta bertan kokatzen direnak, injustizien aurrean ekimena, indarra eta kementa erakusten dute, beste gizarte eredu bat eraikitzeko. Emakumeek pairatzen duten jazarpeneren aurrean matxinatu egiten dira, batez

ere, MMTen jarrerak eta portaerak salatuz eta gutxietsiz.

Paradigma aldaketa eragiteko, **etika-  
ren eta desioaren hizkuntzek bat egin behar dute**. Gizarte osoari dagokio aldaketa honetan urrats berriak ematea, berdintasunean oinarritzen diren baloreak biltzen dituzten pertsonak bihurtu behar ditugu desiragarri, txanpon bereko bi aldeak izango bailira. Min egingo digula dakigun horrek, ezin gaitu erakarri. Hau da modu bakarra, gure gazteek errespetuan, berdinen arteko elkarrizketan eta berdintasunean oinarritzen den jendarte eredu berria irudikatu dezaten.

(Gaiari buruzko informazio gehiago [www.elkarhezi.eus](http://www.elkarhezi.eus))



Miren Josune Bikuña / Duatloi eta triatloilaria

## Izerdi eta sakrifizio asko dago emaitza hauen atzean

Duatloi denboraldia hasi berritan, albiste iturri dugu Miren Josune Bikuña (Oñati, 1962) Atxintxika taldeko atleta. Euskadiko duatloi zirkuitoko azpitzapel-duna izan zen iaz eta duela bi aste Euskadiko Txapelketa irabazi zuen 40-49 urte artekoen beteranoen mailan.

**Pozik egoteko moduan zaude.** Bai, oso pozik. Sari horien atzean izerdi eta sakrifizio asko dago, eta indarra ematen dute entrenatzen jarraitzeko.

**Duela hiru urte hasi zinen duatloiak egiten. Azkar hartu diozu neurria.**

Aurretik korrika egiten nuen eta, beraz, bizikletako diziplina landu behar izan dut gehien. Bigarren trantsizioa, bereziki, bizikletatik korrikarakoa oso gogorra izaten da giharrentzat, eta entrenatu egin behar da hanke erantzun dezaten.

**Zenbat entrenatzen duzu?**

Asko! Batzuk berezko erraztasuna izaten dute, baina nire kasuan, asko entrenatu behar dut emaitzak lortzeko. Astean sei egunetan egiten ditut lan saioak, eta zenbait egunetan bikoitzak (goizean diziplina bat eta arratsaldean beste bat).

**Aurtengo helburuak?**

Euskadiko duatloi zirkuitoko 7 proba puntagarriak egingo ditut, eta podiumean sartzen saiatuko naiz. Ez da erraza izango.

Baina helburu nagusia da proba bakoitzean disfrutatzea eta iazko denborak hobetzen saiatzea. Adinean aurrera noa, eta hori lortzea ez da gutxi.

**Aurten, tamalez, ezin izango zara Oñatin lehiatu.**

Pena handia hartu dut bertan behera geratu dela jakitean. Antolatzaileek gero eta traba handiagoak dituzte trafiko arauak betetzeko, eta beste 3 proba ere betan behera geratu dira.

**Helmuga gurutzatzean sentitzen dudana satisfakzioa ikaragarria da**



**Duatloiak ez ezik, triatloiak ere egiten dituzu, ezta?**

Bai, baina *handicap* handia daukat igeriketarekin. Urte gutxi daramat igeri egiten, eta denbora asko galtzen dut segmento horretan. Hala ere, asko gustatzen zait mundutxo hori, eta disfrutatzea joaten naiz.

**Bestelako erronkak ere ba omen dituzu aurtengorako.**

Bai, aurre berotu egin naiz eta bizikletako bi klasika egiteko asmoa daukat: *Lagos*-ekoa eta *Treparriscos*. Datorren urtean *Quebranta* egin nahi nuke.

**Zer ematen dizu kirolak?**

Helmuga gurutzatzean sentitzen den emozioa ikaragarria da. Aurretik egindako lanaren emaitza ikusten da, eta horrek bete egiten nau. Sufritzea ere gustatu egin behar zaizu pittin bat, lehiaketan sufritu egiten delako, baina, hala ere, animatu egin nahi ditut, emakumeak bereziki, proba egitera.

**ZURICH**

M<sup>a</sup> del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea  
Tel/Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

**HARALD LINDER**

ETXETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK

PERSOANAK, LENDAK, LUR FLOKATEAK, ARROAK, PINTURA LANAK...



DISEÑATZAILE ETA MONTATZAILEA

SHARAFELAK, KOMAKAK eta ASKEZ GORRUGA

ORLATA 12 B 4 esk. - 20600 ORLATA - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77

## Oñatiko I. Duatloi Txikia jokatu da martxoaren 17an

Aloña Mendi Triatloi Taldeak antolatuta, 9-14 urte arteko gazteei zuzendutako I. Duatloi Txikia jokatu da martxoaren 17an. Hiru lasterketa izango dira, adinaren arabera: **Benjaminak** (500m./1,5km./250m.) 10:30etan; **Alebinak** (1km./3,5km./0,5km.) 10:50etan, eta **Infantilak** (2km./7km./1km) 11:15etan. Izen-ematea martxoaren 12ra arte dago zabalik ([www.triatloi.org](http://www.triatloi.org)). Probari buruzko informazioa: [duatloitxikia.oinatikoduatloia.com](http://duatloitxikia.oinatikoduatloia.com)

## Nagusien duatloia bertan behera

Aurten, tamalez, Oñatiko duatloia bertan behera utzi behar izan du Aloña Mendi Triatloi Taldeak, trafikoko baimenak lortzeko izandako zailtasunen ondorioz. Oñatiko duatloia Euskadiko zirkuitoko probarik beteranoenetako bat da (26 urtez jokatu da jarraian) baina aurten ez da egingo. Aloña Mendik dei egin die kirol ezberdinetako federazioei, trafikoko arduradunei eta antolakuntzan parte hartzen duten agente ezberdinei, horrelako arazorik berriro gerta ez dadin eta gauzak modu eraginkorrarekin egin ahal izateko.

## Enaitz Sagasta, Gipuzkoako txapelkun igeriketan

Enaitz Sagasta Aloña Mendiko alebin mailako igerilariak urrezko domina irabazi du Gipuzkoako neguko txapelketan 200 Estiloetan (2'48") eta hirugarren sailkatu da 100 Bizkarrean. Eta bere taldekide Irati Delgadok hiru domina lortu ditu; zilarrezkoa 100 Bizkarrean, eta brontzezko bana 200 Bizkar eta 100 Librean.



## Uxue Osés pilotaria, Gipuzkoako azpitxapelkun

Uxue Osés Aloña Mendiko pilotari gaztea azpitxapelkuna izan da kadete mailako binakako Gipuzkoako txapelketan, Naroa Mendizabal andoaindarrarekin bikotea osatuz. (Kanporaketa guztiak gainditu ostean, finalean 16-4 galdu zuten, baina meritua handiko lana egin du Osesek, kontuan hartuz infantil adinekoa dela oraindik.




## Beñat Guridi, brontzea Gipuzkoako txapelketan

Beñat Guridi Aloña Mendiko korrikariak brontzezko domina lortu du Gipuzkoako pista estaliko txapelketan, 1.500 metroko lasterketan, 18 urte azpiko mailan. Guridik 4:27:79ko marka egin zuen Donostiako belodromoan.



## Xabi Lete irabazle, Zestoako mendi lasterketan

Xabi Lete mendi korrikalari oñatiarrak aurtengo bigarren garaipena lortu du otsailaren 18an jokatu zen Zestoako Kobaz Koba traileko lasterketa motzean. Oñatiarrak 01:08:02an osatu zuen 13km.ko ibilbidea.



## Mendi irteera ipar Euskal Herrira /martxoak 18

Aloña Mendiko mendi sailak martxorako antolatu duen ibilaldiak Lapurdi eta Behe Nafarroa banatzen dituen mendikatea zeharkatuko du. Ortzaizen abiatuta, Baigura (896m.) gaina igo eta Louhosson amaituko da (16km./+900m.). Bost ordu ingurutan egiteko modukoa, zailtasun barik. Irteera, goizeko 7etan postetxe parean. Izena emateko epea, martxoak 15, [alonamendi.mendi@gmail.com](mailto:alonamendi.mendi@gmail.com) edo Aloña tabernan. Prezioa: 10€)

## Zhunbatoia eta Areto Bizikleta Maratoia

Martxoaren 10ean bi kirol ekitaldi berezi hartuko ditu Zubikoa kiroldegia. Goiz partean (10:00-12:00) IV. Zumba Maratoia egingo da (120 plaza), eta arratsaldean (16:00-19:00) VIII. Areto Bizikleta Maratoia (140 bizikleta). Baterako zein besterako, martxoaren 7a da izena emateko azken eguna, [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) webgunean.

**ZINTAN KORRIKA EGITEKO TAILERRA.** Martxoaren 16an, ostirala, zintan korrika egiteko saioen inguruko tailerra egingo da Zubikoa kiroldegiko fitness gelan (17:30-19:00).

## Denboraldi berrirako prest

Aloña Mendiko txirrindularitza sailak aurtengo taldeen aurkezpena egin zuen otsailaren 17an. Danera 25 neska-mutil ariko dira, eta azpimarratzekoa da, Pre-Benjamin mailako sei gaztetxo ere izango direla aurreneko aldiz. Aipatzekoa da, baita ere, lau oñatiar afizionatu mailan ariko direla (Ampo eta Debabarrena taldeetan bina), eta bi neska ariko direla Gipuzkoa Ogiberri taldean. Ulma eta Bizipoz kafetegia dira talde ezberdinen babesleak.



Argazkia: Santi Mendiola

# Kantua kalean

Ganbara Kantu Eskolako eta ikastetxeetako abesbatzak kalera irtengo dira martxoaren 17an. » Arratsaldean 'Arkeologoak' ikuskizuna eskainiko dute Gaztelekuan



2016ko Kantua Kalean egunean Arratoiak ikuskizuna taularatu zuten

Ganbara Kantu Eskolak antolatuta, V. KANTUA KALEAN eguna ospatuko da hilaren 17an. Ganbara abesbatzaren harrobiko taldeek (Tailerrekoak, Txikitxoak eta Txikiak) eta herriko ikastetxeetako abesbatzak irtengo dira kalera, musika koralak herrian duen biziaren eta indarraren erakusgarri.

2009an antolatu zuen Ganbara Taldeak aurrenekoz 'Kantua Kalean' ekimena, musika koralaren arloan Oñatin egiten den lana erakutsi, musika estilo hau herritarrengana gerturatu eta, bide batez, kide berriak erakartzeko asmoz. Oso arrakastatsua gertatu zen ekitaldi hura, eta orduz geroztik bi urtetik behin antolatu izan da ekimena. Batzuetan helduen abesbatzek ere parte hartu izan dute, baina aurtan, esan bezala, gaztetxoek abesbatzak izango dira protagonista.

## KALEJIRA ETA IPUIN MUSIKATUA

Goiz partean kalejira egingo dute abesbatza guztiek batera, eguerdiko 12etan hasita Errementari plazan. Kalegoienan, San Anton plazan eta Foruen enparantzan egingo dituzte geldialdiak, emanaldi laburrak eginez, arratsaldean Gaztelekuan eskainiko duten ikuskizunaren aurrerapen gisa.

Izan ere, arratsaldean "Arkeologoak" izeneko ipuin musikatua eskainiko dute Gaztelekuan, munduko herrialde eta zibilizazio ezberdinak bidaiatuz (Erromatarak, txinatarak...). Bi emanaldi egingo dituzte (17:00etan/18:30etan). Sarrerak 5€; Txokolateixan egongo dira salgai martxoaren 10etik aurrera.

## Urko Arregik irabazi du I. Txinparta Gazte Saria



Etxean geratu da Oñatiko Bertso Eskolak antolatu duen I. Txinparta Gazte Sarietako txapela. Urko Arregik jantzi zuen, Gartxot Ramirezekin buruz burukoan aritu ostean.

Deseroso ekin zion finalari, Urkok berak aitortu zuenez, baina zortziko txikiko ofizioan bertso borobila kantatuta gora egin zuen, eta bakarkako lanetan ere oso txukun aritu zen. Daniel Agirre, Oñatiko bertso eskolaren sortzaileetako batek eman zion txapela Urkori. Publikoaren sarian nerrinditu egin zuten Oihana Arana k eta Gartxot Ramirezek.

Bertsolari gazteei saioak egiteko aukera ematea zen txapelketaren helburua, eta balorazioa positiboa da, jende asko bildu baita Arrano, Pako eta Gaztetxean egin diren saioetara. Datorren urtean segida izango omen du.

## ESKOLARTEKO TXAPELKETA

Joan den larunbatean Gipuzkoako Eskolarteko txapelketako kanporaketa bat jokatu zen Larrain Gain elkarrean. Aitor Tatiegri aritu zen bertan, eta saio ona egin arren, finalerako txartela Haizea Arana eskoriatzarrak lortu zuen. Martxoaren 16an Xabier Agirrek abestuko du Anoetan jokatu den kanporaketa saioan.



## “Oñatiko akordeoi-jole guztiak animatu nahi ditugu, kontzertu berezi bat egiteko”

Musika eskolako akordeoi irakasleen aspaldiko ametsa da; Oñatiko soinu-jole guztiak batu, garai batekoak eta gaur egunekoak, eta elkarrekin kontzertu eder bat ematea. Eta amets hori egi bihurtzeko saiakera egin nahi dute aurten. “Oñatin beti egon da soinua jotzeko zaletasun handia, eta etxe askotan dago akordeoiren bat. Beraz, animatu egin nahi dugu jendea, instrumentuari hautsa kendu eta elkarrekin emanaldi hau prestatzera. Batzuek, seguruenez, ez zuten soinua joko urte askotan, baina ez daitezela horregatik beldurtu; erraz ikasteko moduko piezak aukeratuko ditugu, eta gure laguntza ere izango dute. Uste baino errazago moldatuko dira”.

Kontzertuaren eguna ez dute oraindik zehaztu, baina Gabonen inguruan izango da, Santa Ana aretoan, eta pelikula ezagunetako musika bandak joko dituzte (*Jurassic Park*, *Mamma Mia*, *Carros de fuego*, *La gran evasión*...) pantailan filmetako irudiak ikusten diren bitartean. Emanaldia lehenbailehen prestatzen hasi nahi dute eta, beraz, martxoaren 20ra arteko epea jarri dute izena emateko, [www.jazpiazumusikaeskola.com](http://www.jazpiazumusikaeskola.com) helbidean, edo 943783174 zenbakira deituta. Animatu!

## Goya saria oñatiar guztientzat da



Aitor Arregi zinegileak herri-tar guztiei eskaini zien *Handia* filmarekin irabazitako Goya saria (Jatorrizko gidoi onena) udalak omenaldi gisa antolatutako solasaldian. Bere ibilbidean ikur izan diren lanak (*Sahara marathón*, *Glup*, *Lucio*, *Zarautzen erosi zuen*, *Loreak*, *Handia*) errebasatu ostean, Nerea Zubia eta Irati Etxeberria zinegotziek lore sorta eta oroigarri bana eman zioten zinegile oñatiarrari herritar guztien izenean, orain arte egindako lanagatik zoriondu eta hurrengo proiektuetarako indarra emateko. Arregik eskertu egin zuen udalaren omenaldia eta herri-tarrengandik sentitu duen gertutasuna.

## Drakes itzuliko da, lau urteren ondoren

Punk-rock estiloan arrastoa utzi zuen *Drakes* taldea berriz ere zuzenean entzuteko aukera egongo da larunbatean (martxoak 3) Antixena gaztetxean. (22:00) Gazteburua jaialdiaren baitan. Lau urte dira taldea desegin zela, eta gogoz hartu dute Gazte Asanbladaren gonbitea. Hala ere, itzulera ez omen da luzerako izango; “gaztetxekoa eta beste bi edo hiru kontzertu, asko jota” azaldu digute. Beraz, ez galdu aukera. *Drakes* taldeak (2003-2014) maketa bat eta disko bat (*Si nos dejan no Keremos*, 2010) grabatu zituen, entzuleen saria irabai zuen Danbakaren bigarren edizioan, eta zuzeneko indartsuak eskaini zituen hamaika urteko ibilbidean



Martxoaren 3an joko dute Antixena gaztetxean

**ANE MERTZERIA**

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

**Cartonajes Arregui, S.A.**

- Kartoi ondulatuen fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09  
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

## AGENDA

03

MARTXOA

AGENDA

## + INFO

Eskaneatu ezazu QR kode hau agendako deialdi guztiak ikusi ahal izateko.



## ANTZERKIA

## La casa de Bernarda alba

> MARTXOAK 11  
SANTA ANAN, 19:00

Pabellón N°6 antzerki laborategiak sortu eta Itziar Lazkanok zuzendua. Federico García Lorcak 1936an idatzitako lanaren moldaketa. Garai bateko matxismoaren adibide argia da. Sarrera, 10€ (aldeaz aurretik salgai <http://bibe.me> atarian).

## ZUHAITZ FERIXIA

> MARTXOAK 3 / 9:00-14:00  
Hainbat mintegitako zuhaitz, landare eta fruta arbolak. Foru plazan

## ZUHAITZ EGUNAK

> MARTXOAK 4 / 10:00  
Herrigunean egingo da landaketa. Foru plazan  
> MARTXOAK 11 / 10:00  
Aloña inguruan egingo da landaketa. Unaimendin.

## GAZTEBURUA

> MARTXOAK 2 **Gaztetxean**  
18:00 'Muntai polizialak'. Mahai ingurua, Oretako eta Altsasuko gazteekin.  
20:00 Bakarleriak: Josu Zubia, Aitor Regueiro eta Haritz Olaeta.  
> MARTXOAK 3  
12:00 Bertso saio musikatua Onako plazan.  
13:30 Trikipoteoa  
14:30 Bazkaria. Sarrerak Arrano, Ona eta Bogan.  
17:00 Presoen aldeko argazki erraldoia  
22:00 Kontzertuak: Drakes eta Los WxCx

## SOLASALDIA

> MARTXOAK 13

'EuskLABO ALAIAK' Asisko Urmene-taren solasaldi tailerra. Bakarriketa ilustratua Asiskok kuestionatu egingen du usteria, umorea, marrazkia eta duda metodikoa lagun.



## KONTZERTUAK

> MARTXOAK 2 / 22:30  
NOGEN + ANITA PARKER



Folk-pop indie eta elektros-wing doinuak. Sarrera, 8€. Gaztelekuan

> MARTXOAK 9 / 22:00  
ONE WAY  
Legazpiko rock taldearen kontzertua. Pako tabernan

> MARTXOAK 10  
LIHER  
Emakumeen bazkariaren os-tean. Gaztetxean

> MARTXOAK 16 / 22:00  
IRKAIA + BIDE BAKARRA  
Punk-rock talde nafarrak Gaztetxean

> MARTXOAK 17 / 19:30  
DOMEKETARROK



Oñatiko Domeketarrok tal-deak urteko lehen kontzertua emango du Otamendi ta-berna kanpoaldean.

> MARTXOAK 18 / 12:45  
MUSIKA BANDA  
Oñatiko musika bandaren kontzertua Santa Anan.

BATUAK S.L.

MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN  
TORNO ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA

Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)  
Tfona: 943 78 11 15 • Faxe: 943 71 82 50



## ONGIETORRIA UDABERRIARI PAKE LEKUN

- **Martxoak 12** (17:30)  
Antxon magoaren saioa
- **Martxoak 13** (17:30)  
Hitzaldia: 'Testamento vital'. Beatriz Gomendio
- **Martxoak 14** (10:00)  
Oñatin kalez kale, Jerardo Elortzarekin.
- **Martxoak 15** (17:00)  
Bingo berezia opariekin.
- **Martxoak 16** (18:00)  
Beasaingo Gurea eta Pake Lekuko Aloña abesbatzen kontzertua Santa Anan.
- **Martxoak 22** (17:30)  
Batzar nagusia Santa Anan

## IPUIN KONTAKETA

### > MARTXOAK 22 / 18:00

3-5 urte arteko haurrentzat udal liburutegian, Oihana Etxagibel ipuin kontalaria-  
ren eskutik. Gonbidapenak martxoaren 12tik aurrera.



## LABURBIRA Euskarazko film laburren 15. zirkuitua

### > MARTXOAK 16 Kultur etxean, 19:30

Euskaltzaleen Topaguneak antolatzen duen Laburbira film laburren zirkuituak euskarazko sortzaileen lana ezagutzera ematea du helburu. Aurten 15. ekitaldia betetzen du eta iaz sortutako 8 laburmetrai ikusi ahal izango dira. Denen artean 77 minutuko proiektzio entretenigarria osatzen dute. Laburbirako ikusleen artean landetxe batean bi lagunentzako bi gaueko egonaldia zozkatuko da [www.kameratoia.eus](http://www.kameratoia.eus) atariko galdetegia erantzunda.

## ODOL ATERALDIA

### > OTSAILAK 9

Enpresagintza fakultatean, 17:00etatik 19:00etara.

## LIBURUTEGIKO BERRIENAK



DVD

"Tamara y la Catarina"



Komikia

"Valerosas: mujeres..."



Saiakera

"Gerrak ez du emakume..."



Haur liburua

"Cuentos de buenas..."



Saiakera

"King Kong teoria"



Nobela

"Tea rooms: mujeres obreras"

## MERKATU TXIKIA

- > **EMAKUMEA** naiz, erizain laguntzailea, eta pertsonak zaintzeko prest nago, etxean edo ospitalean. 683456993.
- > **MUTILA** naiz, erizaintzan teknikaria. Pertsonak zaintzeko edo bestelako lanak egiteko prest nago. 683459058
- > **LURSAILA** erosi nahi genuke herri inguruan. 688 699 840
- > **PABILIOIA ALOKAGAI EDO SALGAI** Berezaio auzoan. Harremanetarako: 677 425 822.
- > **KLASE PARTIKULARRAK** ematen ditut. Esperientziaduna eta magisteritza ikaslea naiz. Deitu: 688 867 480

## GUARDIAKO FARMAZIAK

### ANDUAGA San Lorentzo 3, 943 78 21 16

Martxoak 1, 8, 9, 10, 11, 19, 20 eta 28. Apirilak 6, 7 eta 8.

### IGARTUA Kale Zaharra 1, 943 78 01 22

Martxoak 2, 3, 4, 12, 13, 21 eta 22.

### GARATE Kale Barria 42, 943 78 05 58

Martxoak 5, 6, 14, 15, 23, 24, 25, 29, 30 eta 31. Apirilak 1, 2 eta 3.

### JULDAIN Kale Barria 6, 943 78 11 28

Martxoak 7, 8, 16, 17, 18, 26 eta 27. Apirilak 4 eta 5.



## ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21  
Kale Barria, 11  
Lizaur A., 7  
OÑATI  
Tfnok: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO  
GUZTIETAKO  
ALTZARIAK**

**LANPARAK,  
TAPIZAK,  
KORTINAK**

# not+vello

Argi pultatu bidezko  
fotodepilazioa  
(IPL)

Olakua 1B, behea  
943716713  
onati@nomasvello.com

www.nomasvello.es

FOTODEPILAZIOA · IPL-GAZTETZEA · AZALEKO GARBIAKETA · OPARI-KARTELAK

# Kale Barria (IV)

> Jerardo Elortza eta Xabier Zelaia

## KALE BARRI ALDEKO IZENDEGIA

**K**ale Zaharrean jazotakoaren antzera, Kale Barria eta inguruetak **kale-izenetan makina bat aldaketa** izan zen Oñatiko historian zehar. Erdi Aroan hasi eta gaur egunera arte, baina, egia esan, azkenengo 125 urteetan gertatu dira ugarrienak. Azpimarragarrienak azaltzen saiatuko gatzaizkizue.

### Kale Barria

Orain horrela deitzen den kalearen lehen zatia aspaldikoa dugu. Erdi Aroaren amaieran, luze samarra zen jadanik, **Rua Nueva** (1489) legez agertzen zaigu dokumentuetan; baina XVI. gizalditik aurrera **Callebarria** moduan ere maiz irakur daiteke agiritan. Garai hartan, gorago adierazi genuenez, egungo Patruetakale-Naparrenako kantoi ondoraino iristen zen, eta Atzeko kalea Iturritxon dagoen Zubiaurre izeneko zubiraino (orain estalia).

Kale Barriak bi **luzapen** inportante eduki zituen, 1488ko erreketak izugarriaren ondoren: lehenik, egungo Etxaluzeraino hedatzen zena, **Callegoyena** gisa ezagutua XIX.era arte; eta geroago, azkenengo honen jarraian, **Auzotxo** zeritzana Murgizubietaraino, San Martinerako bidean.

Kaleen izenei dagokienez, Oñatiko udalak erabaki oso garrantzitsuak hartu zituen 1896-1897 bitarteko bi bilkuretan. Gipuzkoako Diputazioaren eskariari men eginez, antza, **herriko hainbat kale birbataiatu** zituen, zenbait pertsonaien izenekin ordezkatzuz. Hartara, Kale Barria hamarkada askotan **Rodrigo Mercado Zuazola** bihurtu zitzaigun, plazatik Murgizubietaraino, Kalegoiena eta Auzotxo ere bereganatuz. Trantsizioko lehen udal hau-teskunde demokratikoen ondoren **berreskuratu zuen ofizialki Kale Barria izena** (1979), Eli Galdosen lehenengo alkate-aldian.

### Atzeko Kalea

Erdi Aroan gauzatuko zen hau ere, Kale Barriaren osteko aldean, era paraleloan. Jatorrizko izena hortik datorkio, jakina: XVI.ean erdaraz **Trasera de la Rua Nueva** izendatzen da, hots, kale nagusiaren atzeko aldea; geroago, ordea, **Santa Maria** legea ageri da 1897ra arte; orduko kanbioetan **General Azcárraga** izen berria ezarri zioten, baina ez luzarorako, 1900ean **Garay** plakarekin hasi baitzuen XX. gizaldia. Bestalde, ordukoxea dugu Itu-



M. A. Arzuagaren grabatua

Eskolatzoneko ingurua Atzeko kalean (1953). rritxotik Portalekurainoko tarteari ipinitakoa ere: **Arantzazuko Amaren kalea**, alegia.

Gerra zibilak (1936-1939) ondorio latzak eta ugari ekarri zizkigun: baita kale-izenegian ere. Adibidez, Atzeko kale **Zumalacárregui** bilakatu zen gerra denboran bertan, Francoren alde borrokatu zuten erreketeen eraginez nonbait; guk horrela ezagutu genuen urte askoan. **Atzeko kalea ez zen izen ofizialtzat onartu 1990.era arte**. Beste aldaketa batzuk ere gertatu ziren gerra ostean, 1960 inguruan, Reyes Korkostegi alkate zela. Aztertzen dihardugun eremu honetan bi izendapen berri jarri ziren: bata **Marcelino Celaya**, Auzotxoeko zatiari zegokion Zuazola kalearen lekuan; eta bestea **Ramon Irizar**, Atzeko kaletik oraingo Zubi Barrirako tartean, Makaleneko inguru horretan.

Dena den, **leku-izenen iraupenari buruzko xehetasun bitxiak** daudela esango genuke. Kasu batzuetan, aldi luzean oso ezaguna eta erabiliak izan arren, ahaztu egiten dira erabat, ia aztarnarik laga gabe: **Kalegoiena**, esaterako, azkenaldi honetan nolabait berreskuratu den arte. Beste batzuetan, ostera, nahiz eta urteetan zehar behin eta berriz birbataiatuak izan diren, herri xeheak jatorrizko izenari eutsi dio: adibiderik garbiena **Atzeko kalea** dugu, arestian frogatu denez.

### Kale-izenen zergatiak

**Arrazoi desberdinak** egon daitezke kaleak izendatzeko orduan, eta aldatuz joan dira denbora, ohitura eta joeren arabera. Sasoi batean **tokiari ematen zitzaion garrantzia**, kaleari berari: horrela sortu ziren kale nagusi eta txikiak; zaharrak eta berriak; goienekoak, artekoak eta barrenekoak; aurrekoak eta atzekoak, eta abar.

Gerora, beste zergati batzuk nagusitu ziren: **pertsonaia ospetsuak edo gertakari historikoak hautatzen ziren**, batez ere, zeregin hori betetzeko. Pertsonaien artean handikiek zeukaten aukera gehien: errege-erreginek; noble eta militarrek; politiko eta enpresariak; santu eta santak; apezpiku eta elizgizonek, mojek gutxiago; ongile eta filantropoek; artista, idazle eta zientzialariak, eta era horretako beste hainbatek. Hain famatuak izan gabe, **gremioetako artisau eta langileei** ere eskaintzen zitzaizkien inoiz kale-izenak: zapataria, zurgin, errementaria, sokagile edota dendariei; hori bai, taldean, euren pertsona-izenik aipatzeko.

Gertakari historikoen artetik **gerrak eta gerrateetako pasadizo loriosak eta balentriak** izaten ziren estimatuenak, tamalez.

Bakegintza edo kultura sustatzeko ekintzak askoz urriago. Arlo honetan, Oñatin apur bat denetik izan dugu eta daukagu. Gaurkoan eta hurrengo lanetan horietako lagin batzuk nabarmenduz joango gara.

• Lekuarekin lotutako adibiderik garbienak **Kale Barria, Kalegoiena** eta **Atzeko kalea** dira, zalantzarik gabe. Aurreko lerroetan adierazitakoa kontuan izanik, ez dago, gure ustez, aparteko azalpen beharrik.

• **R. M. Zuazola, R. Irizar, M. Zelaia, M. Azkarraga** eta **K. Garai** ditugu pertsonaiak. Lehen hirurak oñatiarrak ziren, laugarrena filipinarra eta bosgarrena aretxabaletarra.

- **Rodrigo Mercado Zuazola** da ospetsuena. Gure artean, batik bat, hemen XVI. gizaldian eginarazi eta ordaindu zituen eraikuntza eder eta bikainengatik: klaustro gotikoa eta kapera platereskoa parrokian, eta unibertsitatearen eraikina eta fundazioa. **Badirudi Kale Barrian jaioa zela**, 1489ko sutea baino urte batzuk lehenago; bere ama, **Elvira Zuazola, Rua nueva-ko biztanle moduan** dator hurrengo urteko errolda moduko hartan. Tradizioak dioenez, lehen Txarriduna tabernak eta orain San Migel kooperatibak okupatutako orubean omen zegoen jaio-tetxea. Horregatik ditu, nonbait, aurreko eta atzeko fatxadetan Zuazola apezpikuaren armariaren kopiak.

- **Ramon Irizar** eta **Marzelino Zelaia XX.** gizaldiaren hasierako bi kontzejal genituen Oñatiko udalean. Baserritarrak ziren biak: Martxel Zañartuko Upaingoa eta Ramon Zubillagako

Martezkoa. Kontzejuan jardundako urteetan **herri-lurretako basoak zaintzen eta zuhaitz berriak landatzen** burututako lanengatik eskertu nahi izan zizkien bie. Hartarako, 1960 inguruan, Reyes Korkostegi alkatearen garaian, bi zinegotzi hauei eta Roke Azkune basozainari kale bana eskaintzea erabaki zuen udalak.

- **Marcelo Azcárraga** euskal jatorriko militar eta politikoa Manilan jaio zen. Aita bizkaitarra zuen, jenerala, eta ama filipinarra. Karrera militar luzea egin zuen Ameriketako kolonietan nahiz penintsulan, jeneral izatera iritsiz; politikan ere aritu zitzaigun XIX. mendeko bigarren erdian: ministroa izan zen eta, A. Cánovas 1897an Santa Agedan hil zutenean, **hilabete batzuetan gobernuburu kargua bereganatu zuen**. Orduantxe jarri zioten bere izena Oñatiko Atzeko kaleari, baina hiru urte soilik iraun zuen izendapen horrek.

- **Kornelio Garai**, Bedoñako semea (orduan Aretxabaletakoa zen auzo hau), eta Oñatiko industria modernoaren aitzindaria: Goribar auzoko **Garay** pospolo-fabrika sortu zuen XIX.ean. Bere familiakoek, itxialdi luzetxo baten ondoren, beste produktu batzuekin eman diote jarraipena lantegiari, gaur egunera arte. Kornelio Garai Zuazubizkar diputatu ere izanik, Gipuzkoa osoan ezagutzen zuten, 57 urterekin 1900ean hil zenean. Oñatiko udalak orduantxe erabaki zuen Atzeko kaleari (une hartan Azcárraga), **Garay** izena ematea, baina ez luzarorako, 1937an, gerra denboran, Zumalakarregi jeneral karlista historikoari dedikatu baitzioten



Artzelusena, Honbrena eta Txarraskuena Kalegoienan.



Auzotxo 1960ko hamarkadaren hasieran.

**LURRUST**  
TABERNA • JATETXEA  
Bidebarrieta 6  
Tel.: 943 71 62 96  
20560 OÑATI

**FAGOR**  
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA





# ITTEN BAT

(\*) Itten: arrastua, pistia

## EUSKERIA ABERASKETAN

### Baten parra, bi baietz!

Bola-jokuan bada esaera bat trabesak egitteruzkuan kantaitten dana: *Baten parra, bi baietz!* Hauxe esan gura dau: Txirlo bat jo ezkerro, parra trabesa; bi jo ezkerro, osterera, joteilliak irabazi. Posturia aldatu leike, jokatu gura danaren arauera: *bi (edo biren) parra, hiru baietz!*; *hiru parra, lau baietz!* bolalekua zelakua dan eta zenbat txirlo dagozen, Oñatiko San Martinguan sei dagoz, adibidez; beste leku askotan, berriz, hiru. Horregatik, hasieran aittatu dogun esaeria da ezagunena eta ohikuenena. Trabesa ikusle eta bolarixaren artian edo bi ikusleren artian be izan leike.



## KONTU KONTARI

### Bi anae

Etxe batian bi anae kuarto berian egitten euen lo eta bixetako batek lo egitteko arazuak izaten zittuan, gaberdixan iratzarri eta sonanbulokerixak egitten ibiltten zan. Ondo lo egitten ebenak bestiaren txotxolokerixak ikusten kokoteraiño eguen, eta kasurik be ez otsan egitten.

Gabe batian, eztakit zenbatgarrenez, anaeori iratzarri, jaiki eta hasi xakon lo eguenari diarka, bere ohiari azpittik heltzen otsala:

—*Joxe, Joxe, zer egingo xuat? Zer egingo xuat?*

Joxe ziharo aspertuta eguen holako zirkuak ikusten eta halaxe erantzun ei otsan:

—*Neregatik gura dokena egin egik, uheorri bueltia emuten baxak be!*

Eta bestiak, rau! ohiari heldu eta buelta eragin otsan azpikoz gora jarrixaz.

Jo eben danbatekuarekin etxeko danak iratzarri eta ikusi euen zer pasau zan. Sustuagaz bera be iratzarri egin zan, baiña etzan haundixagorik pasau. Danen artian berriz ohia lehengo moduan jarri eta uhera fan ei ziran danak pake-pakian.

## EUSKERAZ EGOGI

### *Dotsut, eta ez Dotzut*

NOR-NORI-NORK motako adizkixen indikatibuan (orain eta lehenaldixan) eta baldintzan **EUTSI** aditza dago aditz-laguntzaillaren erruan edo zuztarrian, eta aditz hori, bai batuan eta baita bizkaiera estandarrian be, 'ts'rekin idazten danez, geuk be halaxe idazten dogu eta ez 'tz'rekin, nahiz eta halaxe agoskau. Gure berbetan 'z' guztiak 's' esaten dogu eta 'ts' guztiak 'tz', fenomeno horri neutralizaziñua esaten xako. Beraz, holaxe idatziko dittugu adizki honeik: *dotsut, dotsuet, notsun, notsuen, otsan, otsain, banotsa, banotsu, balotsa, notsake, notsuke, lotsake...*

Kontuz, gero, bardin esan eta idazten dogun **xat** aditz-laguntzaillarekin, batuko *zait/zaizkit* eta *diot/dizkiot* adizkixak ordezkaketan dittu eta:

Xat= *zait/zaizkit* : *Diru eske etorri xat ulixa* (nor-nori)

*Diru eske etorri xat ulixa eta bendixa* (nor-nori)

Deutsat > dotsat > tsat > xat= *diot/dizkiot* : *Dirua emun xat ulixari* (nor-nori-nork)

*Dirua eta jatekua emun xat ulixari* (nor-nori-nork)



## Maristetako ikasle nagusitxuenak 1951-1952 kurtsuan

**I**kasturte haretan ehundaka mutikok jardungo geben estudixaitten erljioso maristak Oñatiko unibersidade zaharrian eukain San Migel kolejixuan. Dozena bat urte lehenago etorritta egozen bigarren aldiz gure herrira, 1939xan gerria akabo zanian. Eta aurreko etapan lez, kale inguruko mutiko gehixenak eurenganatu zittuain; hurreko auzuetako batzuk be bai, eta urri-ñagoko beste batzuk be inguraketan ziran, esaterako Olabarrieta, Madalena eta Zubillagakuak. Orduan ez euen asko pentsauko maixuok, dozena bat urte beranduago, Oñatittik barriro alde biharra eukiko euenik, 1963an batxillerrera institutua ikastetxe horretan jarri zalako.

Bost mailla emuten ziran sasue haretan maristetan. Fotografixan agiri diran **ikasle gaztiak azkenengo kurtsukuak**-edo izango ziran, hamaika-hamabi urtekuak. Badakigu argazkixa noiz eta nork ataratakua dan: 1951-1952 ikasturtian; arropaiari begiratu ezkerro, **1952ko udabarrixan** esango neke; **erretatistia**, barriz, **Valentziako E. Utrilla** izeneko bat izan zan, fotografixiak atzian dakarren seilluak dixuenez. Hain zuzen be, hori berori izan zan ikasle guztioi, banan-banan, argazkixa atara oskuna unibersidadeko kapilla dotorian, baiña fondo lez atzeko erretablo platereskua hartu biaharran, berak ekarritako kurtiñatxo batzuk ebaliz. Egun hareittan atarako zittuan banakakuak eta taldekuak.

Ba, horra goittik behera eta ezkerretik eskumara ikaslion izen-abizenak, garai haretan non bizi ziran adierazitta; akatsen bat baldin badago, esango doskuzue:

**Goiko illaran:** Joxe Luis Mugartza, Kale Barrikua; Roberto Zubia, Kale Zaharrekua; Alberto Guridi, Kale Zaharrekua; Joxe Luis Guridi, Kale Zaharrekua; Iñazio Arriaran, Kale Barrikua; Felix Biain, Garagaltzako *Iraban* baserrikua; eta Julian Altzelai, San Juan kalekua.

**Erdiko illaran:** Luis Zubia, Olabarrietako *Legarre* baserrikua; Migel Anjel Gorritxo, Kale Barrikua; Jexus Ezpeleta, Patrue kalekua; Pako Guridi, Kale Barrikua; Luis Mugartza, Plazakua; Jabi Altube, Mola kalekua (orain Lope Agirre); Juanito Azkue, Kale Zaharrekua; Juan Karlos Kortabarria, Goribarko *Ugartondo* baserrikua; Jabier Guridi, Zubillagako *Narbaixena* baserrikua; eta Felipe Antonio Igartua, Atzeko kalekua.

**Behoko illaran:** Fernando Arregi, Santa Marinakua; Migel Anjel Ugarte, Kale Zaharrekua; Jabier Madina, San Anton kalekua; Jabier Irizar, Patrue kalekua; Joxe Mari Ugarte, *Korta*; Manolo Romano, San Anton kalekua; Rafael Urtzelai, Kale Zaharrekua; eta Jexus Madina, Arantzauko Ama kalekua.

J. E.

Fotografixia Migel Anjel Ugartek eskuratu dosku. Argibide batzuk Migel Anjeleri ez ezik, Enrike Zelaia eta Anton Elortzari be zor xaugu. Milla esker!

# Aran Hernández

home staging



Etxean aldaketa  
bat behar duzu?

- Etxea saldu nahi duzulako?
- Alokairuan jartzea erabaki duzulako?
- Etxeari aire berri bat emateko?

Inbertsio txiki batekin  
asko irabaz dezakezu!

*Eskatu zure aurrekontua konpromisorik gabe*

Arantzazu Hernandez Zurutuza / Tel: 626114382 / [aranhernandez@aranhernandez.com](mailto:aranhernandez@aranhernandez.com)



[www.aranhernandez.com](http://www.aranhernandez.com)